

Mikel Goiangeruaren parrokiak otsailaren erdialdera irekiko ditu ateak



INGURUMEN JARDUNALDIAK

Hitzaldiak, erakusketak, zine emanaldiak eta bestelako ekitaldiak otsailaren 9tik 28ra Oñatiko Natur Eskolaren eskutik.



50. URTEURRENA

Aloña Mendiko Eskubaloi sailak 50 urte beteko ditu aurtan. Askotariko ekitaldiak antolatuko dituzte urte osoan zehar herritarrekin batera ospatzeko.



Ateak irekitzeko ia prest

Lau hilabeteko berritze lanen ostean, otsailaren erdialdera irekiko ditu ateak Mikel Goiaingeruaren parrokiak. Argiteria berritzeaz gain, erretaula guztiak garbitu eta zoruan zeuden akatsak konpondu dituzte.

Lau hilabeteko berritze lanen ostean, otsailaren 15ean edo 22an –data zehatza finkatu barik dago oraindik– irekiko ditu ateak berriz ere San Migel parrokiak. Egin beharreko lanak amaituta, klastroan baztertuta egon diren bankuak eta bestelako altzariak beren tokietan jartzea baino ez da gelditzen.

Argiteria berritzea izan da parrokiaren burutu den esku-hartzearen arrazoi nagusia. Orain arteko argi-fokuak oso altu zeuden eta hauen mantenuak arazo eta buruhauste ugari eragiten zituen. Gainera, lehengo fokuek ematen zuten argi orokor eta indartsuak parrokiako elementu artistikoak nabarmentzea galarazten zuen.

Konponbide bila, eraikin historikoen argiztatze lanetan aditua den ingeniari batengana jo zuten parrokiako arduradunek, eta haren iriz-

pideari jarraiki, argiteria sistema guztiz berritzea erabaki dute, hainbat adituren oniritziarekin.

Alde batetik, fokuen altuera jaitsi dute eta, gainera, LED teknologiadun foku berriak ipini dituzte, erretaulak eta elizak berak dituzten intereseko elementu artistikoetara argia zuzenean proiektatzen dutenak. "Argiztatze kontzeptu berria da", adierazi du Horazio Argarate parrokoak; "argi-ilunekin eta argi epelagoarekin jokatzeko du, orain arteko argiaren intentsitatearen ondorioz oharkabea pasatzen ziren xehetasun arkitektoniko eta artistikoak nabarmenduz".

Parrokiako argiztatze sistema berritzeko lanak gidatu dituen ingeniaria Bartzelonako Sagrada Familia eta Santiago de Compostelako katedralean ere aritu izan da, besteak beste, antzeko lanetan.

ERRETAULAK GARBITU

Argiteria berritzeko lanei ekin aurreko ikuskapenean, erretaula nagusia hautsez beteta zegoela ikusi zuten, eta, hala, zaharberitze lanetan aritzen den Xabier Mendizabal ofizialari egin zioten erretaulak garbitzeko enkargua. Garbiketa orokor bat egin dute parrokiako erretaula guztietan. Gainazalean pilatutako hautsa kentzen saiatu dira, brotxak eta xurgagailuak erabiliz, eta "tonaka hauts" atera omen dute, Mendizabalek adierazi digunez.

Horrez gain, erretaula ezberdinetan solte edo erortzeko arriskuan aurkitu dituzten elementuak finkatu dituzte, eta parrokiaren gordeta zeuden eta identifikatu ahal izan dituzten hainbat elementu (San Migelen geziak, adibidez) beren lekuetan birkokatu dituzte. Eta, bide batez, erretaulen egoeraren

diagnostikorako fitxak ere bete dituzte, Foru Aldundiaren esku uzteko.

Lanak borobiltzeko, parrokiako zoru guztia lixatu eta bernizatu egin dute, hondatuta zeuden oholak kendu eta berriak ipini ostean. Gainera, jarleku edo bankuak garbitu eta loka edo kili-kolo zeuden batzuk konpondu eta sendotu egin dituzte.

Lanek 125.000 euro inguruko aurrekontua izan dute, eta klastroko teilatua berritzeko herritarren artean iaz egin zen kanpaina bildutako diru gerakina bideratuko da horretara. ULMAK aldarmioak laga ditu erretaulak garbitzeko, eta Udalari laguntzeko asmoa ere badute.

Horazio Argarate pozik dago egin diren lanekin, eta eskerrak eman nahi dizkie obra batzordeko kideei eta lanean ibili diren guztiei.



Elementu artistikoak nabarmenago

Parrokian instalatu den argiztapen sistema berriari esker, LED teknologiadun foku berrien argia intereseko elementu artistiko eta arkitektonikoetara proiektatzen da zuzenean, orain arte oharkabean geratzen ziren hainbat elementuren balioa eta edertasuna nabarmenduz, ondoko argazkietan ikus daitekeen moduan.



» XABIER MENDIZABAL VITORIANO

"Berezia izan da txikitatik miretsi izan ditudan erretaula hauetako hauetan parez pare lan egin ahal izatea"

Elementu artistikoen zaharberritze lanetan aditua eta aritua den Xabier Mendizabal ofatiarra arduratu da parrokiako erretaula guztiak garbitzeaz. "Gainazaleko garbiketa egitea eskatu ziguten, denboraren poderioz iruditeriaren gainean pilatutako hautsa kentzea, alegia. Oinarrizko garbiketa bat da, bai, baina, era beran, oso garrantzitsua erretaulen kontserbaziorako, egurra saneatu eta in- tsektu xilofagoak agertzeko aukera gutxitzen baitu. Ez da garbiketa estetiko soil bat". Lodiera ezberdineko brotxak eta xurgagailuak erabili dituzte, eta "hauts tonak" atera omen dituzte. Garbitzeaz gain, solte zeuden hainbat elementu finkatu dituzte, eta, bide batez, erretaulen egoerari buruzko diagnostikoa egin dute Foru Aldundiari igortzeko. San Migel parrokia arte estilo ezberdinak uztartzen dituen "museo" bat omen da, eta oso berezia izan da txikitatik miretsi izan dituen erretaula hauetan lan egin ahal izatea.



◀ ▶
Ondoko irudietan ikus daiteke parrokiari egin diren garbiketa lanen emaitzak

INGURUMEN JARDUNALDIAK

> **Onddoen erreinu** ezezaguna deskubritzeko aukera izango dugu aurten Natur Eskolaren eskutik, **otsailaren 9tik martxoaren 1era**


> **'Aztarna energetikoa', 'Abeltzaintza estentsiboaren onurak' eta 'Kirolariak mendian: espezie inbaditzailea?'** dira jorratuko diren beste gaietako batzuk

Otsailarekin batera, Ingurumen Jardunaldiak antolatu ditu aurten ere Oñatiko Natur Eskolak, Udalaren laguntzarekin. Ingurumenarekin lotutako heziketa eta kontzientziazioa zabaltzea da Natur Eskolak urtean zehar ikasleekin egiten duen lanaren xedea, eta ingurumen jardunaldien bidez lan hori herri osora hedatzea du helburu.

Aurten ere egitarau bete-betea prestatu dute, ondoko orrian ikus daitekeen moduan, gauza harrigarri eta bitxiak ezagutzeko edota puri-purian dauden gaien inguruan gogoeta egiteko bidea emango digutenak.

Gai ezberdinei buruzko lau hitzaldiz gain, onddoei buruzko erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean, jardunaldiek dirauten bitartean, eta, ohi bezala, zine-klub emanaldiek, zuhaitz ferixak eta zuhaitz landaketa egunak osatuko dituzte jardunaldiak. Irteera bat ere egingo da Oñatiko onddoak ezagutzeko.

Natur eskolako kideek herritar guztiak animatu nahi dituzte jardunaldietan parte hartzera.




Onddoei buruzko erakusketa eta hitzaldi bana egongo dira

► **ERAKUSKETA** / Otsailak 9 - Martxoak 1

'Fungi? Onddo!'

Onddoei buruzko erakusketa egongo da ikusgai kultur etxeko erakusketa aretoan, astelehenetik igandera, 18:00-20:00.

BISITA GIDATUAK:
otsailaren 10, 19 eta 23an (18:00)



► **HITZALDIAK** / Kultur etxean, 19:00

Otsailak 9 (astelehena), erakusketa aretoan:

'Onddoen erreinu ezezaguna'

Hizlaria: Unai Fernandes Agirre, Aranzadiko Mikologia saileko eta Iberiar Penintsulako Mikologia elkarteko kidea



» Onddoen mundu ezezagun, miragarri eta anitza deskubritzeko aukera izango dugu. Onddoak ez dira ez animaliak, ezta landareak ere. Beraz, zer dira onddoak? Zein dira beraien ezaugarriak? Onddoen biodibertsitatea, ekologia, ugalketa, ekosistemetan betetzen duten funtzioa eta organismo hauen inguruko beste hainbat kontu bitxi eta jakingarri ikasteko aukera.

Otsailak 11 (asteazkena):

'Aztarna energetikoa. Desberdinkeria MWh-tan neurtzen da'

Hizlaria: Estitxu Villamor Lomas. Fisikan doktorea, EHUko irakaslea eta EKOPOL taldeko ikerlaria



» Unitate batek (norbanakoa, familia, herria edo estatua) kontsumitzen duen energia kopurua da aztarna energetikoa. Kontua da, denok ez dugula energia kantitate bera gastatzen. Zergatik batzuk gehiago, eta beste batzuk gutxiago? Horixe ari da ikertzen Villamor, aldagai desberdinak (generoa, klasea, herritartasuna -bertakoa izan edo migrantea izan-...) kontutan hartuz. Bere ikerketaren nondik norakoak eta emaitzak azalduko ditu.

Otsailak 18 (asteazkena):

'Larreen garrantzia: abeltzaintza estentsiboaren onurak'

Hizlaria: Arantza Aldeazabal Roteta. Biologian doktorea, EHUko irakaslea eta ikerlaria



» Larreek presentzia handia dute gure inguruetan, baina gure larreak ez dira naturalak, baizik eta gizakiak sorturikoak abeltzaintzaren bidez. Orain arte, kontserbazioaren ikuspuntutik oso zabaldua egon da basoaren garrantzia, eta, bestalde, zenbait sektore zientifikotatik asko kritikatu izan da abeltzaintza. Bada, Aldeazabal dator paisaia mosaikoaren (zelai, sastrakadi, baso...) apologia egitera eta, aldi berean, abeltzaintzaren inguruko zenbait mito deuseztera.

Otsailak 20 (ostirala):

'Kirolaria mendian: espezie inbaditzailea?'

Hizlaria: Luix Mari Zulaika Isasti, EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zientzien fakultateko irakaslea. Pedagogoa eta Heziketa Fisikoko Magisteritzan diplomatua



» Azkenaldian asko hazi den fenomeno da mendian kirola egitearena, eta, bereziki, mendi lasterketak. Naturak kirolariari testuinguru bat eskaintzen dio kirola praktikatzeko, baina, kontua da, zer ematen dioten kirolariek eta mendi kirolaren jarduna kontsumitzen duten herritarrek naturari.

► **ZINE-KLUBA** / Kultur etxean, 19:30

Otsailak 19 (osteguna):

'Mariposas negras'

Berotze globalaren eraginez dena galdu eta migratu beharrean aurkitzen diren planetako puntu oso desberdinetako hiru emakumeren bizipenetan inspiratutako filma.



Otsailak 26 (osteguna):

'Historias del buen valle'

Vallbona Bartzelonako kanpoaldeko auzo bat da, eta bertan bizi dira elkarrekin lehen migratzaileen etxeak, gerraostearen ondoren iritsi zirenak, eta lo-hiriko bloke berriak, migrazio berria biltzen duten txoko xumeak, herrikia global bihurtuz. Gatazko sozial, generazional, identitario, urbanistiko eta ekologikoari buruzko dokumental interesgarria.



► **ZUHAITZ FERIXIA** /

Otsailak 21 (larunbata):

Mintegi ezberdinetako zuhaitz, landara eta haziak eskuratzeko aukera egongo da, 9:00etatik aurrera, Foruen plazan.

► **ZUHAITZ EGUNA** /

Otsailak 22 (igandea):

Zuhaitz landaketa egingo da Natur Eskolako kideen eta basozainen laguntzarekin, herri-guneko txokoren batean. Goizeko 10:00etan, Foruen plazan.

► **IRTEERA** /

Otsailak 28 (larunbata):

'Oñatiko onddoak'

Irteera Oñatiko inguruetan. Goizeko 9:00etan Natur Eskolan. Aurrez izena eman behar da: natureskola@yahoo.es



Bederatzi hilabetez luzatuko dira unibertsitatea birgaitzeko lanak

➤ Kanpoaldeko nahiz klaustroko fatxadak zaharberritu eta hezetasunak eragiten dituen kalteak saihesteko hainbat esku-hartze egingo dituzte. ➤ Irisgarritasuna bermatzeko, igogailua eta eskailera berriak eraikiko dituzte, eta Oñatiko turismo bulegoa ere unibertsitateko behe solairuan egokituko dute

Aldamioen muntaketarekin, Aurtarrilaren 19an hasi ziren Sancti Spiritus Unibertsitatea birgaitzeko lanak, eta dena aurreikusi bezala badoa, 9 hilabete igaroko dira gure eraikinik enblematikoena berriro distiratsu eta eder ikusi arte.

Abian jarri diren birgaitze lanen helburu nagusia eraikinak azken hamarkadetan jasan duen narriadura geldiarazi eta zuzentzea da. Kanpoaldeko nahiz klaustroko fatxadak zaharberrituko dira, harriaren beraren konposizioagatik (bolumetria galera, pitzadurak...) edo kanpoko faktoreek (ura, hezetasuna, pilatutako zikina...)

eragindako kalteak konponduz. Teilatuaren isolamendu termikoa ere hobetuko da, hondatutako teilak ordezkatzuz, eta euri urak egoki bildu eta bideratzeko erreten eta bestelako ur-hustuketa sistemak berrikusi eta berrituko dira. Kanpoaldeko hormen behaldean urik ez pilatzeko eta aireztapena hobetzeko egokitzen den kamera bufoaren egoeraren azterketa ere aztertuko da, bere funtzioa egoki betetzen ote duen egiaztatzeko.

Horiez gain, garrantzia berezia izango du eskultura-elementuen zaharberritzeak, eta, horretarako, zaharberritzaile espezia-

» Aurreneko bi fase hauetan egingo diren lanek 3 milioi euro pasako aurrekontua dute eta Europako Next Generation funtseko laguntzarekin finantzatuko dira

listak arituko dira lanean. Ildo horretan, iazko uztailan tximista batek hondatutako eskultura ere ordezkatzuko dute, jatorrizko irudiaren kopia bat bertan kokatuz.

Lehen fase honetako lanak *TEUSA Técnicas de Restauración S.A.* enpresak egingo ditu, *Tabuenca&Leche* arkitektura bulego nafarrak idatzitako proiektuaren arabera, zeinak aurrez *PETRA* enpresa espezializatuak egindako azterlan eta esku-hartze proposamena hartu baitu oinarri eta abiapuntu.

Birgaitze lanen lehen fase honen 2,3 milioi euroko aurrekontua du (BEZa barne) eta bederatzi

hilabeteko egikaritze edo exekuzio epea. Eta kasu honetan, berebiziko garrantzia du epeak betetzea, obra hauek finantzatzeko Europako *Next Generation* Funttsaren laguntza lortu baita, eta horrek epeak zorrotz betetzea eskatzen du, dirulaguntza galdu nahi ez bada.

BIGARREN FASEA LASTER

Orain arte aipatutako lanez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa da bigarren faseko lanak ere lehenbailehen abian jartzea.

Bigarren fase honetan, Oñatiko turismo bulegoa egokitzeko lanak egingo dira, unibertsitatearen behe solairuan, sarrera nagusitik ezkerraldera, orain arte IVAPek (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) erabili izan duen espazioan. Turismo bulegoaren aldamenean erakusketa gune iraunkor bat ere egokituko da.

Bestalde, irisgarritasuna hobetu eta etorkizunean eraikinari erabilera publikoagoa emateko beharrezkoak diren beste lan osagarri batzuk ere egingo dira bigarren fase honetan. Hala, igogailua eta eskailera berriak egokituko dira mendebaldeko hegalean –eraikinaren ezkerraldeko dorrean, sarrera nagusitik begiratuta–. Gainera, larrialdietarako irteera berriak egokituko dira, eta aireztapen- eta giroitze-beharrei erantzuteko instalazioetarako espazioak ere prestatuko dira, besteak beste.

Bigarren fase honetako lanen proiektua prest dago eta Foru Aldundiak pasa den astean atera zituen lizitazioa, lanei ahalbait azkarren ekiteko. Fase honek milioi bat euro inguruko aurrekontua du, eta 6 hilabete inguruko egikaritze epea. Asmoa da, fase bietako lanak bateratsu egitea, goian esan dugun moduan, Aldundiak 3 milioi euroko laguntza jaso baitu birgaitze lan hauei aurre egiteko, eta *Next Funtseko* dirulaguntzak zuritzeko epemuga zorrotza izaten delako.

AURRERAGOKO LANAK

Aldundiko arduradunak azaldu



Tximistak hondatutako irudiaren faksimilea ipiniko dute

Iazko uztaillean tximista batek jo eta lehertu zuen estatua baten faksimile edo kopia bat ipiniko dute hark utzitako lekuan. Orduan eroritako harriak jasota eta gordeta daude, baina batzuk txiki-txiki eginda daude eta, beraz, kopia edo faksimile bat egitea erabaki dute, hura ordezkatzeko. Dena den, ez da baztertzeko batutako harri puskekin jatorrizko estatua berreraikitzea, eta turismo bulegoaren aldamenean egokituko den erakusketa gelan jartzea.

FATXADAREN JATORRIZKO ITXURA BERRESKURATU

Oraindik ez dago erabakita, baina unibertsitateko fatxadari dagokionez, egun bistan dauden harriak kare argiko morterozko geruza fin batez emokatzea aztertzen ari dira, unibertsitateak jatorrian izan zuen itxurara gerturatzeko eta, modu horretan, harlanduzko elementu arkitektoniko eta artistikoei protagonismoa emango dien fondo neutroa sortuz.

dutenez, prest daukate Sancti Spiritus unibertsitatearen birgaitze integralerako proiektu orokor bat, unean uneko beharren eta diru baliabideen arabera, gauzatuz joango den bide-orri moduko bat. Orain, eraikinaren narriadura prozesua geldiarazi eta irisgarritasuna bermatzea da lehentasuna, baina etorkizunera begira, esku-hartze berriak egitea da asmoa, Ernazimenduko harribitxi honen birgaitze integrala osatu eta, modu horretan, eraikinari erabilera publikoagoa eman ahal izateko.


Ildo horretan, gogoratu behar da, turismo bulegoa unibertsitatearen eramateaz gain, lehen solairuan hutsik dagoen espazioan herritarrentzako ikasketa-gelak egokitzeko asmoa daukela Oñatiko udalak. Aldundiko arduradunek adierazi dute Udalarekin harremanetan daudela, eta begi onez ikusten dutela eraikinari erabilera berriak ematea eta herritarrei irekitzea, horixe delako eraikina egoki kontserbatzeko modurik onena. *

Sei esku-hartze garrantzitsu 1935etik

Foru Aldundiko Arkitektura saileko arduradunek azaldu dutenez, 1935etik hona sei esku-hartze garrantzitsu egin dira Sancti Spiritus unibertsitatean. Ondoko argazkia 1930eko hamarkadan egin ziren lanei dagokie.

Azken birgaitze integrala 1993-1994an egin zen, Angel Iturbe alkate zela, Eli Galdos ahaladun nagusi, eta Antton Arbulu Hirigintza eta Arkitektura saileko diputatu. Orduan jarri ziren, adibidez, eraikinaren kanpo nahiz barrualdeko argi fokuak, eta klaustroko berdegunea ere orduantxe egokitu zen.

Gerora ere makina bat mantenu lan egin izan dira, baina azken urteotan fatxadak narriadura progresiboa jasan du, harrizko hainbat elementu apaingarri erortzeraino. *



1930eko hamarkadan egindako zaharberritzearen irudia



Izaro Elorza, alkatea, eta Iñigo Ruiz, Hirigintza batzordeburua, obraren inguruko azalpenak ematen

Apirilerako amaituko dituzte plaza ondoko birgaitze lanak

➤ Lanik handienak, lurrazpiko azpiegituren (ura, argindarra, telekomunikazioak...) berritzea amaituta, adokinak jartzea, berdeguneak eta jarlekuak egokitzea, eta irisgarritasuna hobetzeko lanak falta dira obra amaitzeko

➤ Eraldaketa estetikora mugatu barik, plaza eta pilotaleku arteko gunearen irisgarritasuna eta funtzionaltasuna hobetzea da esku-hartze honen helburua



Gorri-hori koloreko adokin zeramikoek estaliko dute kioskoaren eta iturriaren arteko eremu guztia.

Foruen plaza inguruko espazioak birgaitzeko asmoz, iazko uztailan hasi ziren lanak azken txanpan sartu dira. Halaxe adierazi zuen udaleko Hirigintza batzordeko buru Iñigo Ruizek, Izaro Elorza alkatearekin batera obran bertan egindako prentsa agerraldian. "Lan handienak egin dira jada; ur-hoditeria, argindarra eta telekomunikazio azpiegiturak berritu dira, eta horretarako ireki ziren zangak estali ondoren, zoladura eta altzariak berritzea, eta irisgarritasuna hobetzeko lanak soilik falta dira obra amaitzeko".

Lanak erritmo onean doazela esan zuen Ruizek, aurreikusitako epeak betez, eta, horrenbestez, Aste Santurako lanak amaituta egongo direla iragarri zuen.

Kiosko eta lorategi inguruko zoladura jartzen hasita daude jada. Beheko argazkian ikus daitekeen moduan, gorri-hori koloreko adokin zeramikoak estaliko da kioskotik iturriainoko gunea, iturria ez ezik, Gernikako arbola ere gunean integratuz eta presentzia handiagoa emanez elementu hauei.

BERDEGUNEAK ZAPALGARRI

Kiosko inguruko lorategietan forma aldaketa txikiak egingo dira, eta eremu hauek inguratzen zituzten burdinazko hesitxoak kenduko dituzte, "berdeguneak ere zapalgarri eta erabilgarri bihurtuz, alegia, belar gunetara sartu-irtenak modu naturalean egin ahal izatea bermatuz", azaldu zuen Ruizek.

Gernikako arbolararen inguruan zegoen hesia ere kendu egingo da, eta plazatik pilotaleku eta azoka alderako pasabide zabal eta irisgarria egokituko da arbolararen aldamenetik, lehen zeuden koska eta mailak ezabatuz, ibilbide nagusi gisa duen izaera indartuz.

Berdeguneen artean lehen zeuden banku edo jarleku klasikoak ere kendu egingo dituzte, eta hauen ordeztu egurrezko banku jarraituak egokituko dira, lurzoruko adokin mota berarekin estalita egongo diren hormigoi blokeen gainean. Berdeguneen



Gernikako arbolaren aldamenean, Foruen plaza eta pilotaleku/azoka gunearen arteko pasabide zabal eta irisgarria egokituko da, lehen zeuden koska eta mailak ezabatuz, ibilbide nagusi gisa duen izaera indartuz

barruan ere ipiniko dituzte jarlekuak.

KIOSKOA ETA AZOKA

Kioskoari dagokionez, plazara ematen duen hesia mantendu egingo da, baina iturri aldekoa kendu egingo da eta harmailak egokituko dira bertan, haurrek jolas egin ahal izateko, edota bertan antolatu litezkeen formatu txikiko ekitaldietarako auditorio moduko bat sortuz.

Azoka guneari dagokionean, lehen zegoen behin-behineko arrapala kendu eta irisgarritasun baldintzak betetzen dituen arrapala berria egokituko da, pittin bat luzeagoa, malda arintzeko. "Arrapala hau azokak duen kota berera iritsiko da, lehen zegoen koska edo mailatxoa saihestuz eta irisgarritasuna bermatuz. Hau da, berdindu egingo dira azoka barruko eta kanpoaldeko kotak, espazio jarraitua eta terraza moduko bat sortuz", azaldu du Ruizek. Gune horretan dauden harmailetan egurrezko jarleku ergonomiko batzuk ere ipiniko dituzte.

JOLASGUNEAN ASFALTOA

Iturria eta pilotalekuaren artean dagoen zabalgunea asfaltatu egingo da, lehen bezala, baina kolorez argiagoa eta goxoagoa den asfaltoarekin, eguneroko joan-etorri eta haurren jolaserako egokia dena, eta, orain arte bezala, larunbatetako azoka eta jaietako barrakak hartzeko gai dena. "Orain arteko funtziona-

mendua mantenduko da gune honetan, oso espazio bizia eta balio-anitza delako", adierazi zuen alkateak.

Plazako argi-postea lekuz aldatuko dute

Plaza erdian dagoen argi-postea kiosko ondoko lorategira eramango dutela aurreratu du udaleko Iñigo Ruiz Hirigintza batzordeko buruak. Obra hau aprobetxatuz, lekualdaketa hori egiteko azpiegitura prest utzi dute, baina argi-postearen lekualdaketa aurrerago egingo da, obra hau amaitu ostean. Plazako argiteria guztia (eraikinetako foku eta arkupeetako luminariak) berritzeko asmoa du Udalak –azterketa luminikoa lizitatuta dauka– eta prozesu hori amaitzean berrituko da plazako argiteria.

HERRITARREN ESKAERA

Plazako kioskoa eta frontoiaren arteko zoladura berritzea eta berdeguneak egokitzea, 2023-2024ko Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarren aldetik boto gehien jaso zuen proposamena izan zen.

Ertz asko zituen proiektua izanik, Udalak lanketa berezia egin nahi izan zuen, departamentu ezberdinak (Haur eta Gazteria, Berdintasuna, Hezkuntza, Partaidetza...) elkarlanean jarritz arkitecto taldearekin batera, eremu honek urtean zehar dituen erabilera ezberdinen (egoteko tokia, jolaslekua, azoka, barrakak...) beharrei egoki erantzun ahal izateko.

Azkenean, *Next Generation* funtsetik jasotako dirulaguntzari esker, esku-hartze integrala egin ahal izan du Udalak. "Eraldaketa estetikora mugatu barik, espazio publiko hau leku atseginoagoa, irisgarriagoa, inklusiboago eta funtzionalagoa bihurtzea izan da helburua, egonleku eta aisialdi gune gisa betetzen duen rola indartuz", azaldu zuen Ruizek. Lanek 700.000 euroko aurrekontua dute.



Kultur etxeko erakusketa aretoa lepo bete zen Elisa Salaren hitzaldia entzuteko

Jakinmina piztu du bakardadeari buruzko hitzaldiak

Herritar ugari bildu zituen eskualde mailako Debagoiena Ehuntzen egitasmoaren baitan Elisa Sala Mozos ikerlari eta gizarte aholkulariak bakardadearen inguruan emandako hitzaldiak. Bakardadea zer den, nola antzeman daitekeen eta horri aurre egin ahal izateko komunitate-lotura sendoagoak nola eraiki daitezkeen argitzen saiatu zen hizlaria.

Bakardadea du lan-ildo nagusi Debagoiena Ehuntzen egitasmoak. Eskualde mailako galdeketa egitea izan zen lehen urratsa, diagnostikoa osatze aldera, eta orain hitzaldiak egiten ari dira herriz-herri. Lierni Altube Oñatiko udaleko Ongizate batzordeburua pozik azaldu da lanketa honek Oñatin izan duen harrerarekin. "Denon artean dugu bakardade egoerak leuntzen ahalegindu beharra, eta ikusi da kezka eta borondatea badaudela".

EMAKUMEENTZAKO AHOLKULARITZA ZERBITZU JURIDIKOA

"Animatu egin nahi ditugu emakumeak, beldurrik gabe eta konfiantzaz, edozein delarik ere daukaten zalantza, etortzeko hona. Informazioa edukitzea beti da osasuntsua"

Urte eta erdi igaro da Oñatiko udalak emakumeei zuzenduriko doako aholkularitza zerbitzu juridikoa abian jarri zuenetik, beraien autonomia eta ahalduak sustatzeko helburuarekin. Zerbitzua eskaintzen duen Garazi Plazaolak (Irule Abokatuak) azaldu digu norentzat eta zertarako izan daitekeen lagungarria bertara jotzea.

Urte eta erdi igaro da zerbitzua martxan jarri zela. Zein balantza egiten duzu?

Balorazio positiboa da. Herrian horrelako zerbitzu publiko bat edukitzeak oso lagungarria da emakumeak zeharkatzen dituzten gatazka desberdinetan. Erabateko garrantzia daukalako gatazka horien aurrean informatuta egotea, lehenengo pauso bezala, gutxienez. Eta hori zerbitzu honekin nolabait bermatzen da, gutxieneko orientazio hori jasotzea, dohanik eta kalitate batekin.

Zer eskaintzen du zerbitzuak?

Zerbitzu hau dago zuzenduta Oñatiko emakume guztiei, eta dohainik da. Bertan aholkularitza juridikoa eskaintzen dugu, emakumeei eragiten dieten gatazken inguruan, gatazka hori edozein momentuan dagoela ere. Batzuk etortzen dira oraindik inongo gatazkarik ez dutela, baina kezka bat daukatelako aurreikusten dituztelako egoera desberdinak, eta horien aurrean informatuta egon nahi dutelako: paperak egin ala ez, nola egin, edo kontu patrimonialak nola lotu...

Beste kasu batzuetan izaten da jada gatazka bat daukatenean eta horren aurrean lehenengo urrats horiek nola eman. Beste batzuetan prozesuan daude, edo prozesua amaituta.

Egoera guzti horietan ematen da zerbitzua, eta aurkeztu diguten egoeren aurrean ematen dugu orientazio juridikoa; azaltzen da ondo emakumeak momentu horretan dituen eskubideak zeintzuk diren, eta hortik aurrera zein pauso eman ditzaketen aztertzen dugu beraiekin batera, bakoitzak dituen egoera eta helburua kontuan hartuta, beti ere.

Bikotekideekin edo familia barruan sortutako gatazken inguruan ez ezik, lan arloko diskriminazio kasuetan ere laguntzen duzue, ezta?

Bai, zerbitzu hau planteatzen da modu oso irekian, ulertzen dugulako askotan gatazka bat bestearekin lotuta joaten dela, eta emakumeak zeharkatzen duenean horrelako fase bat, askotan gatazka arlo desberdinetan ematen direla. Beraz, eskaintzen dugu orientabidea arlo desberdinetan. Egia da, batez ere familia



GARAZI PLAZAOLA Irule Abokatuak

» Erabateko garrantzia dauka gatazka mota ezberdinen aurrean informatuta egotea, lehenengo pauso bezala, gutxienez. Eta hori zerbitzu honekin bermatzen da, gutxieneko orientazio hori jasotzea, dohainik eta kalitate batekin



giroan ematen diren indarkeria matxistaren ingurukoak izaten direla, baina askotariko kontsultak izaten ditugu; atzeritartasunarekin lotutakoak, lan arlokoak, etxebizitzaren alokairuaren ingurukoak, gai patrimonialei buruzkoak.... Printzipioz, denak artatzen ditugu, eta gai oso zehatzak direnean, deribazioak egiten ditugu, edo badaukagu, baita ere ikerketa txikiak egiteko ordu poltsa bat ere, eta hortik saiatzeko gara erantzunak ematen ikerketa txiki hori egin ondoren.

Maiz entzuten dugu emakume asko beldur direla salaketak jartzeko garaian, babes gabe sentitzen direlako. Ba al da aurrerabiderik ildo horretan?

Tamalez, berdin jarraitzen dugula esango nuke. Ez da harritzekoa sententzia hori egotea, nahiko gurekeena baino askoz polikiagoa doalako sistema judiziala, eta gizarte babesa ez da oso sendoa errealitatean, eta ez dira prozesu oso humanizatuak izaten, nolabait esateko.

Orduan, egia da, noski, egoera batzuetan aurrera egin behar dela horrelako prozesuekin, ez dagoelako beste modurik ber-



Nahia Sanz eta
Garazi Plazaola
(Irule Abokatuak),
aholkularitza zerbitzu
juridikoa eskaintzen
duten letraduak.

matzeko emakume edo familia horren segurtasuna eta ongizatea. Beti baloratzen dugu zuhurtzia handiz, eta, noski, emakumeen helburu eta nahiekin batera egokia den bide hori edo ez. Baina inolaz ere idealizatu gabe, eta beti, errealistak izanez. Hori transmititzen saiatzen gara, desesperantzara jo gabe, baina ezkutatu gabe ere indarkeria instituzionala prozesu askotan presente dagoela, eta prozesua eta arau prozesal horiek ez direla justuki emakumeon beharrak erdigunean jartzen dituenak, eta, jakina, horrek sortzen du halako kalte edo ezinegon bat.

Nori aholkatuko zenioke zerbitzua?

Gatazka baten aurrean dagoen edozein emakumeri. Normala da gai juridikoen aurrean galduta egotea, menperatzen ez ditugulako, eta hemen edozein gairi buruzko kontsulta egin dezakete. Eta azpimarratuko nuke ez dela beharrezkoa momentu horretan bertan gatazka bat bizitzen egotea; adibidez, okurritzen zait, familia edo elkarbizitza bat hastera doazen momentuan interesgarria izan daitekeela informatzea

GARAZI PLAZAOLA Irule Abokatuak

» Familia edo elkarbizitza bat hastera goazen momentuan interesgarria izan daiteke zein eskubide-obligazio sortzen diren eta nola erregulatu nahi dugun idatziz jasotzea. Modu horretan prebentzio lana egin daiteke ondoren gerta litezkeen banaketa edo dena delakoen aurrean



Emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea helburu

Aholkularitza zerbitzuaren helburua da orientabideak ematea arlo juridikoan, genero ikuspegitik, emakumeen diskriminazio, babesgabetasun eta indarkeria egoeren aurrean laguntzeko: banaketak, dibortzioak, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pentsioen ordainketa ezak, bisita erregimenak ez betetzeak, atzeritartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, lan arloko diskriminazio kasuak, eskubideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta bestelako kontsultak... Udaleko Berdintasun sailetik bideratzen den zerbitzu honen helburua da aholkularitza juridikoaren bidez emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea, erabakiak hartzeko eta irtenbideak bilatzeko prozesuan parte hartze aktiboa izan dezaten. Arreta pertsonalizatua, egokitua eta konfidentziala eskaintzen da. Zerbitzua jaso ahal izateko, aurrez hitzordua eskatu behar da udaleko Berdintasun sailarekin harremanetan jarrita: berdintasuna@onati.eus / 943780411 (010) -125 luz.-.

elkarbizitza-talde horretan nola nahi duten hori erregulatu, zein eskubide-obligazio sortzen diren momentu horretan, nola lotu ditzaketen akordio horiek, askotan hitz egiten direlako, baina ez bada inon jasotzen, horrek ondorioak izan ditzakeelako gero. Beraz, prebentzio lana egin daiteke modu horretan, ondoren gerta litezkeen banaketa edo dena delakoen aurrean, kontu horiek aurrez adosten badira: haurren zaintza, kontu patrimonialak, etxebizitzari dagozkionak...

Zer egin behar du zerbitzura jo nahi duenak?

Udaleko Berdintasun sailera jo behar da (berdintasuna@onati.eus) eta bertako teknikariek lotzen dituzte hitzorduak. Haiekin koordinatuta gaude gu. Normalean hilabetean behin eskaintzen dugu zerbitzua Oñatin bertan, modu presentzialean, baina kasu bakoitzaren larritasun edo urgentziaren arabera, beste data batzuk ere jartzen dira, zerbitzua ahalik eta azkarren eman ahal izateko.

Ezer gehitu nahi al duzu? Zer azpimarratu nahi zenuke?

Sentsazioa daukat, Oñatin eta beste herri batzuetan daukagun esperientziagatik, emakume askok zalantzak izaten dituztela, eta zaila egiten zaiola ulertzea zerbitzu honetara hartzailerik bezala joan daitekeen edo ez. Beraz, animatuko nituzke emakumeak, beldurrik gabe eta konfiantzaz, edozein delarik ere daukaten zalantza, etortzeko hona, informazioa edukitzea beti delako osasuntsua eta egokia, eta egoera desberdinen aurrean lasaitasuna ekartzen duelako normalean, eta kontrol sentsazioa ere bai, ez dakit nolako egoera larriagoetara iritsi aitzin.

Beraz, animatu egin nahi ditut zerbitzua aprobetxatzera, eta, jakina, gatazka bete-betean dauden emakumeak ere bai, noski; prozesua hasita badute, ofiziozko abokatuak baldin badaukate, edo partikularra, berdindatuta, batzuetan, gainera, bikoteak abokatu berarekin hasten dituzte banaketa prozesuak. Edozein delarik ere kasua, zerbitzu hau baliatu dezakete, erabateko anonimotasunaz, kontrasteak egiteko edo beste begirada bat edukitzeko, beti izaten baita aberasgarria. *



Mireia Centeno psikologo eta psikopedagogo izango da hizlaria

Familiaren ongizate emozionalerako gakoak mintzagai

OTSAILAK 10, ASTEARTEA, SAN JUAN KALEKO 5 ZENBAKIKO LOKALEAN (17:00-19:00)

» Familiaren baitan, hurrekin edo bikotekidearekin, sortu ohi diren gatazkak, kudeatzeko estrategiak landuko dira udaleko Berdintasun sailak antolatu duen hitzaldian. Herritar guztiei irekia da.

HITZALDIA Udaleko Berdintasun sailak antolatuta, 'Fami-

liaren ongizate emozionalerako gako feministak' hitzaldia emango du Mireia Centeno psikologo eta psikopedagogo zumaierak otsailaren 10ean, San Juan kaleko 5 zenbakiko lokalean (17:00-19:00).

Herritar guztiei, emakume zein gizonei, zuzendutako hitzaldia da, "batez ere, umeen hazkuntza prozesuan dauden familiei", azaldu digu Centenok. Haurtzaroan eta nerabezaroan espezializatutako psikologo eta psikopedagogo da bera, eta une zailak igarotzen ari diren familiei laguntzen die, orientazioa eta tresna praktikoak eskainiz.

Eta, hain zuzen, familiaren baitan, seme-alabekin edo bikotekidearekin, sortu ohi diren gatazkak kudeatzen ikastea da hitzaldiaren helburua, familiaren ongizate emozionala berreskuratzeko tresnak eta estrategiak lantzea, azken finean.

"Amatasunean eta aitatasunean emozioen inguruan sortzen diren kezka eta gatazken jatorria aztertuko dugu", azaldu digu Centenok. "Sistema heteropatriarkalak ezartzen dizkigun

Amatasunean eta aitatasunean emozioen inguruan sortzen diren kezka eta gatazken jatorria aztertzeaz gain, emozio horiek egoki kudeatu eta egunerokoan praktikan jartzeko tresna eta estrategiak ematen saiatuko gara

dinamiken testuinguruan, zailtasunak nondik datozen eta emozioetan duten eragina ulertzen saiatuko gara. Ondoren, emozio horiek kudeatzen ikasteko gakoak ematen saiatuko gara, jakinik, noski, horiek egunerokotasunean praktikan jartzea ez dela beti erraza izaten, eta, askotan, oztopoak aurkitzen ditugula. Saiatuko gara arazo, oztopo edo zailtasun horiek nondik datozen ulertzen, errealitatera ekartzen, eta, azkenik, estrategiak sortzen zailtasun horiei aurre egiteko, kontziente izanda, noski, familia bakoitzaren abiapuntua eta errealitatea ezberdinak direla. Familiaren ongizate emozionala egoki kudeatzeko zer egin dezakegun hausnartzea da helburua".

Udalak antolatzen duen Emakumeentzako Jabetze Eskolaren baitan 'Amatasunean bidelagun' izeneko tailerra burutu da, amatasunak gaur egun sortzen dituen arantzak eta kezkak partekatzeko, eta hitzaldi hau tailer horren osagarri gisa antolatu da, baina herritar guztiei irekia, hau da, emakume zein gizonei, eta, bereziki, seme-alaba txikien hazkuntza prozesuan dauden familia eta bikoteei zuzendua.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

MIREN UGARTE
Fisioterapia

Etkez-etxeko tratamendua

- Neuroerreabilitazioa
- Heldu nagusiak
- Traumatologia

Arreta pertsonalizatua eta eguneroko beharretara egokitua
T. 609 589 843 · miren.fisioterapia@gmail.com

OÑATIKO EMAKUMION ETXIA PRESTATZEKO LANAK AZKEN TXANPAN

Nola doaz Emakumion Etxeko obrak? Obrak amaitu dira eta hurrengo hilabeteetan, etxia prestatuko dugu, udaberrian, herrira zabaltzeko.

Zertan ari gara Emakumion Etxeko kideak? Emakumion Etxeko herritar taldeak eta Udaletik lanean ari gara. Urtarrilaren 19an batu ginen Gobernantza Zirkuluan: egindako lanak partekatu genituen eta hurrengo pausuak aurreikusi genituen.



• **Programatzaileak:** "Gu zortzi emakume gara eta hilean behin batzen gara. Ikasturte hasieran, programatzeko eta ekintzak ebaluatzeko tresna bat sortu genuen. Modu horretara, antolatzen dugunaren zentzua argiago izango dugu. Egitea bezain beharrezkoa iruditzen zaigu ebaluatzea eta horregatik, ebaluazio-tresna bat ere sortu dugu, egindakoetatik ikasi eta hobetu ahal izateko. Hurrengo hilabeteetan, Etxiaren irekiera-egitaraua landuko dugu. Herritarren ideiak jasotzeko prest gaudel!"



• **Zubigileak:** "Gu lau emakume gara eta hilero batu gara. Gure erronka da herriko beste eragileekin hartu-emanetan egotea. Harremanak indartzeko aprobetxatu genuen azaroaren 25 eguna: indarkeria matxistaren aurkako egunean, topagune bat antolatu genuen herriko plazan eta Datozen hilabeteetan ere emakume kolektibo ezberdinekin harremanak egitea izango da euren egitekoa.



• **Saltserak:** "Gu sei emakume gara eta giroa sortzea izaten da gure egitekoa. Azaroak 25eko topagunea antolatzen aritu ginen: egun horretan, Emakumion Etxetik ere kalean egoteko eguna dela iruditzen zaigu eta indarkeria matxistak salatu genituen. Ondoren, manifestazioan parte hartu genuen. Orain, martxoak 8rako ekintza pentsatzen jarri gara.



• **Talaiakideak:** "Gu bost emakume gara eta hilean behin batzen gara. Lehenik eta behin, Emakumion Etxiak zein izen behar zuen pentsatzen aritu ginen. "Emakumion Etxia" mantentzearen alde egin genuen, azkenean. Azaroak 25, indarkeria matxistaren aurkako egunera begira, egitarauari lema orokor bat asmatu genion eta manifestazio amaieran irakurritako testuan ere idatzi genuen. Datozen hilabeteetan Etxiaren iruditegi berria landuko dugu.



Jostunak: "Gu lau kide gara eta etxearen funtzionamenduari eta elkarbizitzari erreparatzen diogu, harreman parekide eta askeen ikuspegitik. Hilabeteotan Elkarbizitza Kode bat lantzen aritu dira: kode honetan jaso dira Etxian nork parte hartuko duen, nola parte hartu ahalko den, hizkuntza-irizpideak, lagapenerako irizpideak, etab".

IZAN PARTE

Taldeak irekita daude, nahi duenak parte hartzeko.

Interesa izanez gero, idatzi berdintasuna@onati.eus edo 688 78 52 47.



60. urteurrenerako hitzarmena sinatu dute Udalak eta Oñati Abesbatzak

Oñati Abesbatzak 60 urte betetzen ditu aurten, eta hori ospatzeko urte osoko egitarau berezia antolatu du: kontzertuak, hitzaldiak, liburu aurkezpenak... Eta hori guztiori aurrera eramanez ahal izateko Udalaren laguntza (8.000€) jasoko dute. Oñati Abesbatza 1966an sortu zen eta helburu nagusien artean dauka euskal musika eta kultura sustatzea, eta ekintza humanistiko-sozialetan eragitea. 60. urteurrenako hurrengo ekitaldiak martxoaren 12an –Oñati Abesbatzaren entsegu irekia– eta martxoaren 14an –Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar abesbatzaren kontzertua– izango dira. Izaro Elorza alkateak, Iñaki Olalde Kultura zinegotziak eta Oñati Abesbatzeko kide Xabier Zelaia eta Rafael Anduagak sinatu zuten hitzarmena.



Lankidetzaren hitzarmena berria sinatu du Udalak eta Odol Emaileen elkartearekin

Udalak lankidetzaren hitzarmena berri du Oñatiko Odol Emaileen elkartearekin, 2026ko odol-emateen antolaketa eta sustapena bermatzeko helburuarekin. Herriko odol emateen elkarteak hileroko odol-emate egunak koordinatu eta antolatzeaz arduratzen da eta, gainera, herritarren parte hartzea sustatzeko ekintzak antolatzen ditu. Izaro Elorza alkateak, Lierni Altube Ongizate batzordeko buruak eta emateen elkarte Lorea Biainek eta Edurne Galdosek sinatu dute hitzarmena. Denek azpimarratu nahi izan dute odola ematearen garrantzia, eta herritarrei dei egiten diete Oñatin horren erroturik dagoen elkartasun ekintza horretan beraien ekarpena egin dezaten. Oñatiko hurrengo odol ateraldia otsailaren 20an izango da, Enpresagintza fakultatea (16:30-20:30).

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntza deialdia

Nazioarteko lankidetzaren eta elkartasuna zein udalerritan mailan heziketa eta sentsibilizazioa sustatzen dituzten ekimenei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak, lau lerrotan banatuta:

- **A lerroa:** Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzaren proiektu estrategikoak garatzeko laguntzak. (95.000€)
- **B lerroa:** hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzaren ekintza edo ekimen puntualak garatzeko laguntzak. (35.000€)
- **C lerroa:** Oñatiko udalerritan bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazioa jardueretarako laguntzak (9.500€)
- **D lerroa:** larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko laguntzak. (18.000€).

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEAK

'A' eta 'B' lerroei dagokienez, 30 egun naturaleko epea egongo da eskaerak aurkezteko, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik aurrera. 'C' eta 'D' lerroetan, berriz, 2026ko azaroaren 1era arteko epea egongo da, deialdia GAO-n argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Dirulaguntzak zuzentzeko azken eguna abenduaren 31 izango da lerro edo atal guztietan.

Berdintasunaren arloan diharduten elkarteentzako dirulaguntza deialdia

Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkarteetara zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du udaleko Berdintasun sailak. Eskaerak jasotzeko 30 egun balioduneko epea irekiko da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean hasita.

1,8 milioi euroko ekarpena egingo dio Udalak Mankomunitateari

Debagoieneko Mankomunitateak aurtengorako onartu duen 13,4 milioi pasatxoko aurrekontuari aurre egiteko 1.828.612 euroko ekarpena egitea dagokio Oñatiko Udalari, biztanle kopuru eta jardun ekonomikoaren arabera, besteak beste.

HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN TXOSTENA

EAEko Herri Kontuen Epaitegiaren azken txostenaren arabera ('2023ko Toki Erakundearen Kontu Orokorrak'), Oñati da akats kuantitatiborik edo formalik ez duten 66 udalerrietako bat.

ARANTZAZU-ARAOZKO APARKALEKUEN MONITORIZAZIOA

Iaz egindako lehen deialdia hutsik geratu ostean, Arantzazuko eta Araozko aparkalekuen betetze maila monitorizatu eta denbora errealean jakinarazteko sistema instalatzeko lanak lizitazioa atera ditu berriz ere Udalak, hasierako proiektuari aldaketa batzuk eginda, 99.293 euroko aurrekontuarekin.

ikasi, hazi
bizi Urgan!



Matrikula: otsailaren 2tik 13ra



HH BIDEOA



Aurrerantzean Errementari plazan egongo da hilean behin (ikus egutegia behean) orain arte azoka ondoan egoten zen Garbigune ibiltari zerbitzua

Baserri inguruneko plastikoaren bilketa

Deba Garaia landa garapena elkartek plastiko bilketa zerbitzuaren 2026ko egutegia eman du ezagutzera.

Plastikoa ateratzeko egunak hauek dira:

- Otsailak 24
- Martxoak 24
- Maiatzak 26

Bilketa lekuak:

- Zañartu, Zuazola inguruan.
- Murgialdai, Asentzio ermitan
- Olabarrieta, autobus geltokian
- Musika Eskola gainaldean

Garbigune ibiltariaren kokapenetako bat aldatu du Mankomunitateak

- > Errementari plazan ipiniko da, eta ez azoka ondoan.
- > Olakua auzokoa berdin mantenduko da.

Garbigune ibiltari edo mugikorrak Oñatin orain arte izan dituen bi kokapenetako bat aldatzea erabaki du Mankomunitateak, arrazoi operatiboak tarteko. Urte hasierarekin batera gauzatu da kokapen aldaketa hori eta, hala, aurrerantzean Garbigune ibiltaria ez da azoka gunean egongo, Errementari plazan baizik, goiko argazkian ikusten den moduan.

HAMABOSTEAN BEHIN OÑATIN

Garbigune ibiltari zerbitzua hamabostean behin egoten da Oñatin, ostegunetan, goiz eta arratsalde (10:30-21:00). Hileko lehen aldian Errementari plazan, eta bigarrenean Olakuan, autobus geltokiaren ondoan. (Ikusi egutegi zehatza beheko taulan).

Zerbitzu honen bidez etxeetan sortzen diren hondakin arriskutsu txikiak jasotzen dira, Garbigune zerbitzua herritarrei hurbilduz, Urrutukora joan beharrik izan gabe. Jasotzen diren hondakinak hauek dira: aerosolak, bonbila halogenoak, kontsumo baxukoak (bonbila normalak errefusa dira), fluoreszenteak, inpresoretako kartutxoak, CD/DVD/VHS (bideo zintak) eta musika zintak, pilak eta bateriak, termometroak, motore-olioa, pintura eta disolbatzaileak, garbitasun produktuak, erradiografiak eta aparatu elektriko eta elektroniko txikiak (batidorak, plantxak, telefono mugikorrak, ordenagailuetako teklatuak, xaguak...). Hondakin bakoitzerako lekua bereizita dago eta hondakinak ahalik eta txukunen uztea eskatzen du Mankomunitateak.

GARBIGUNE IBILTARIA 2026ko Oñatiko egutegia

Hilabetea	Errementari plazan	Olakuan
Urtarrila	8	22
Otsaila	5	19
Martxoa	5	20*
Apirila	16	30*
Maiatza	14	28
Ekaina	11	25
Uztaila	9	23
Abuztua	6	20
Iraila	3	17
Urria	1 eta 29	15
Azaroa	12	26
Abendua	10	24*

(*) Martxoaren 20an, apirilaren 30ean eta abenduaren 24an goizez bakarrik



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheka • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

'Baserritar Misto Profesional' programaren deialdia berria ireki du Foru Aldundiak



Mikel Igartua da iaz **Baserritar Misto** programarekin bat egin zuten 15 baserritarretako bat. Enpresako gerentearekin eta Xabier Arruti diputatuarekin dago argazkian.

Gipuzkoako Foru Aldundiak iaz abian jarri zuen *Baserritar Misto Profesionala* programaren helburua da lehen sektorean belaunaldien arteko erreleboa sustatzea, nekazaritzaren arloan jarduera bat garatzeko interesa dutenen trantsizioa erraztuz. Enpresako lanaldia %50era murriztuz, bi jarduerak modu profesionalean uztartzeko bidea ematen du programak.

Iazko deialdian 15 baserritarrek hartu zuten figura hau; tartean, Azkontegi baserriko Mikel Igartua ofatiarrak. Cartonajes Arregi enpresan egiten du lan Igartuak, eta bertako jarduna erdira jaitsita, familia-baserriko zereginei denbora gehiago eskaintzeko aukera du orain. "Gurasoak erretiratu ondoren baserriaren kudeaketa neure gain hartu nuen, eta programa honi esker debora gehiago daukat orain familia-ondare honi jarraipena emateko", adierazi du. Egun, behi-haragia zuzenean saltzen dute Azkontegin, eta etorkizunera begira, nekazaritza ekologikoan murgiltzeko aukerak aztertzen ari da.

Iaz programak izan zuen harrera ona ikusita, aurten deialdi berria egitea erabaki du Foru Aldundiak, 600.000 euroko partidarekin – beharren arabera handitu ahal izango dena–. Interesdunek urteko edozein egunetan aurkeztu ahal izango dute eskaera.

Hondakinak ondo bereizteko kanpaina jarri du abian Mankomunitateak

Hondakinak modu egokian bereiztera animatuz, esku-orriak, kartelak eta sare sozialen bidez zabaltzen ari den 30 segundoko spot-a –Irene Murua saskibaloia jokalaria protagonista duena– prestatu eta zabaltu ditu Debagoiena Mankomunitateak. Eta hurrengo egunetan liburuxka informatibo bat ere plazaratuko du, tokian tokiko bilketa sistema bakoitzaren ezaugarriak laburbilduz. Bideo dibulgatzaile bat ere zabalduko da, biltzen den hondakin mota bakoitzaren ibilbidea laburbilduz. Helburua argia da: herritarrek kontzientziaztea hondakinak bereiztearen garrantziaz, modu horretan kutsadura, kostuak eta tasak murriztu ahal izango direlako. Erronka ere garbia da: Debagoienean egun gaika biltzen den portzentajea handitu eta %80ra iristea.



HITZA HERRITARREI EMATEA ESKATU DU EAJ-K

EAJ-k positibotzat jo du Mankomunitateak abian jarri duen kanpaina, birziklatzea delako, jeltzaleen esanetan, hondakinen bilketaren giltzarria, eta horretarako ezinbestekoa da kontzientziazio lana. Baina, hala ere, herritarrek ez engainatzeko eskatu du eskualdeko EAJ-k. Jeltzaleek uste dute badela garaia eskualdearentzat egokiena den bilketa sistemari buruzko eztabaida serio eta demokratiko bat irekitzeko, non eraginkortasun ekonomikoa eta 'kutsatzen duenak ordaindu egiten du' printzipio europarra baloratuko diren. Ildo horretan, herritarrei hitza ematea eskatzen du EAJ-k, hondakinak biltzeko zein sistema nahi duten erabakitzeko aukera izan dezaten.

TRASTE ZAHARREN ZERBITZUA ARDURAZ ERABILTZEKO DEIA

Azkenaldian traste zaharrek batera sailkatu gabeko zaborra ere atera izan da hainbat bilketa puntutan, bilketa zerbitzu honen jarduna zailduz. Beraz, zerbitzua modu arduratsuan erabiltzeko deia egin du Mankomunitateak. Oñatin, ostegunetan (20:00-22:00) egiten da bilketa hau, eta trasteak atera aurretik 943711938 zenbakira deitu behar da.



Enpresagintza fakultateak hitzarmena sinatu du adimen artifizialean liderra den SAS-ekin

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak lankidetzat hitzarmena sinatu du datuen kudeaketan eta Adimen Artifizialean (IA) mundu mailan punta-puntan dagoen SAS konpainiarekin, *Business Data Analytics* (BDATA) graduaren orientazio praktikoa indartzeko helburuarekin.

Hala, graduako ikasle eta irakasleek SAS® Viya® for Learners softwarearen erabilera akademikorako sarbidea izango dute. Software hau online plataforma indartsu bat da, analitika prediktiboa, machine learning edo modelizazio estatistikoa bezalako esparruetan proiektu errealak garatzeko aukera ematen duena.

Prebentzio hutsegiteak Autlan-en

LAB sindikatuak jakinarazi duenez, Eibarko Lan Arloko epaitegiak Autlan eta honek azpikontrataturako *One Facility Service* enpresaren aurkako epaia eman du, langile batek elektrolisi ontzietako katodoen garbiketa lanetan izandako istripuaren harira. Epaia bidezko jotzen du segurtasun neurri faltagatik ezarritako prestazioen errekar-gua, konkretuki, %30eko errekar-gua.



'Esnatu ala hil' Euskararen oraina eta geroa aztergai

**OTSAILAK 9, ASTELEHENA
GAZTELEKUAN (18:30)**

Aixotu euskara taldeak antolatuta, ***Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan*** liburuaren aurkezpena egingo da Oñatin, otsailaren 9an (Gaztelekuan, 18:30).

Iñaki Lurrebasok eta Gari Goikoetxea idatzi duten liburu honek zeresan ugari eman du euskaltzale eta euskalgintzaren esparruan. Euskararen indarberritze prozesua noraezean dagoen honetan, begiak



Gari Goikoetxea

zabaltzeko ordua dela diote egileek, eta horretan laguntzeko asmoz idatzi dute liburua.

Euskarak hitzunen artean duen atxikimendu mailaz, motibazioaz – batez ere gazte eta haurren artean –, hezkuntzaren egitekoaz, familia eta komunitatearenaz... Datozen hamarkadetako bidea irudikatzen kontuan hartu beharreko hainbat gakori buruzko gogoeta egiten da liburuan, eta horien inguruan berba egitera etorriko da egileetako bat, Gari Goikoetxea.

Martxoaren 28an iritsiko da Korrika Oñatira

> Elorregitik sartuko da Oñatira, eta herrigunean buelta hartuta, berriz ere Elorregitik aterako da Bergarara bidean



Helmugara iritsi bezperan, martxoaren 28an, iritsiko da aurtengo Korrika Oñatira, eta ezohiko ibilbidea egingo du gurean; normalean, Elorregitik Udanara edo alderantzizko bidea egin ohi du, baina, aurten, Elorregitik sartu eta Oñatiko herrigunean buelta eman ostean berriz ere Elorregitik aterako da Bergarara bidean.

Oñatiko herrigunean osatuko duen ibilbidea haxe izango da: saihesbidetik Bidebarrietara sartuko da, Motxon kaletik Atzeko Kalera, eta Foruen plaza zeharkatu ostean Kale Zaharrean barrena Elorregirako bidea hartuko du.

GOIZALDEAN BERRIZ ERE

Aurten ere ordu txikitik igaroko da Korrika Oñatitik. Zehazki larunbat goizeko 4:45ak inguruan iritsiko da Elorregira, Arrasatetik igaro ostean, eta Oñatiko bira osatuta, 6:15ak aldera irtengo da Elorregitik Bergararuntz. Aurtengo Korrika, 24.a, martxoaren 19an abiatuko da Atharratzetik, eta hilaren 29an amaituko da Bilbon, Euskal Herria zeharkatu ostean, 'Euskara gara' leloa zabalduz.

KORRIKA BATZORDEA

Urtarrilaren 26an osatu zen Oñatiko Korrika Batzordea. Zeu ere modu batera edo bestera laguntzeko prest baldin bazaude, atek zabalik daude. Hurrengo bilera otsailaren 11n egingo da Euskaldun Berria gelan, 17:30etan.

OPORRAK BAKEAN

Udan haur sahararrak Oñatira ekartzeko deialdia



•Izena emateko azken eguna:
otsailak 15.
•Informazio gehiago:
oporrbakean.eus

'Oporrak bakean' programaren baitan, zabalik dago haur sahararrak udako bi hilabeteetan etxean hartzeko prest dauden familientzako izen-ematea. Tindouf-eko (Aljeria) basamortuan bizi diren 10-11 urteko haurrei uda Euskal Herrian igarotzeko aukera ematea da programaren helburua, basamortuko 50 gradu inguruko tenperaturak saihestuz.

Hemengo egonaldia oso garrantzitsua izaten da haurren osasuna eta bizi esperientziarako. eta hemengo familientzat ere oso aberasgarria gertatu ohi da, herri sahararren egoeraren inguruko sentsibilizazioa areagotzen baitu.

Iaz bost haur saharar etorri ziren Oñatira, eta harrera-familia horiek beste herritar batzuk ere animatu egin nahi dituzte 'Oporrak bakean' egitasmoarekin bat egitera. Otsailaren 15era arte dago zabalik izen-ematea. Oñatiko Udalak ere bat egiten du ekimenarekin eta haurren bidaia gastuak bere gain hartzen ditu.

TXANDAk herriko kaleak girotuko ditu inauterietan

> Bertako produktuz osatutako **saskiak eta 50 euroko erosketa txartelak** zozketuko ditu bezeroen artean.

> Gainera, **erakusleiho lehiaketa** bat antolatuko du, establezimendu eta boto-emaileentzako sariekin

Oñatiko merkatarien elkarteak 'Ospatu Inauteriak Txandarekin' kanpaina jarriko du martxan otsailean, tokiko merkataritza herriko Inauterietako aisialdi jardueretan integratu eta bezeroen fidelitasuna saritzeko helburuarekin.

Kanpainak bi ekintza nagusi izango ditu: batetik, 'Ostegun Gizeneko' lote edo saskien zozketa bezeroen artean, eta, bestetik, Inauterietako erakusleiho lehiaketa.

OSTEGUN GIZENEKO LOTEAK

Otsailaren 2tik 11ra bitartean, kanpaina parte hartzen duten establezimenduek bezeroen erosketa tiketak jasoko dituzte 'Ostegun Gizeneko' lote baten zozketan parte hartzeko. Lotea bertako produktu tradizionalaz (txorizoa, arrautzak, gaztea eta sagardo edo txakolin botila bat)



osatuta egongo da. Eta horrez gain, 50 euroko erosketa txartelak ere zozkatuko dira, martxoaren amaiera arte TXANDako edozein dendetan trukatu ahal izango direnak. Guztira, 37 sari zozketatuko dira eta saridunei telefonoz deituko zaie saria emateko. Otsailaren 11n egingo da zozketa, eta sariak hilaren 12an, Ostegun Gizen egunean, banatuko dira.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Bestalde, Inauterietako Erakusleiho Lehiaketa antolatuko da otsailaren 2tik 17ra. Parte hartzen duten saltokiek Inauterietako gaiarekin apainduko dituzte eskaparateak, eta herritarrek aukeratu dute, boto bidez, gustukoena. Zozketan parte hartzen duten herritarren artean 50 euroko 20 sari zozkatuko dira, eta boto gehien jasotzen dituzten erakusleihoek 300, 200 eta 100 euroko sariak jasoko dituzte, hurrenez hurren. Sari banaketa otsailaren 23an egingo da, 20:00etan, San Juan kaleko 5 zenbakiko lokalean.

Herriko kaleei jai giroa ematea da kanpainaren helburua, merkatarien eta herritarren arteko harremana sendotzea, eta Inauteriak bezalako data berezietan tokiko merkataritzaren balioa azpimarratzea. TXANDAk antolatu du ekimena, Oñatiko udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

TXANDAREN Gabonetako zozketa berezia

TXANDAk ia 5.000 euro banatu zituen bezeroen artean Gabonetako zozketa berezian. Urtarrilaren 10ean egin zen sari banaketa. Sari nagusiak, 1.000 eta 600 eurokoak, **Asier Olalde** eta **Pilar Ayastu**rentzat izan ziren, hurrenez hurren. Horiez gain, 300 euroko sari bat eta 30 euroko beste hainbat sari eman zituen Oñatiko merkatarien elkarteak.



Asier Olalde eta Pili Ayastu sari nagusiekin



Beste sarituetako batzuk





ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)

Kolaboratzaileak:

Roberto Altuna, Gaztelekua
Natur Eskola eta udaleko Berdintasun saila

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik

Hondakin bilketa sistemak eta gaizki ulertarazteko arriskua

Iker Oñate Aiestui

(Oñatiko Udaleko Ingurumen batzordeburua)

Azken hilabeteotan hondakin bilketa sistemen inguruko eztabaida suspertu gura izan du Debagoieneko EAJk –eta, beraz, Oñatikoak–. Hainbat hedabidetan ikusi ahal izan ditugu horri loturik egin dituen agerraldiak. Ez diot egurrik botako suari, nire helburua ez baita eztabaida berpiztea, besteak beste, atez ateko edo edukiontzi sistemak estrategia alderdikoi eta elektoraletatik kanpo egon behar luketela uste dudalako.

Dena den, oharrean badira kezka eragin didaten zenbait kontu –kezka hori da gutun hau idaztera eroan nauena–. Hasteko, argitu beharrekoa da EAJk zabalduetako irakurketa eta datuak ez direla orokorrak, partzialak baizik. Hauxe dio sarreran: “Atez atekoak urtean 820.000 euro eskatzen ditu soilik pertsonalean, eta edukiontzien sistemak, berriz, 450.000 euro”. Pertsonal gastuak besterik ez ditu jakinarazi –horiek lortzeko aurrean izan duen taulak hamasei kontzeptu edo gastu barnebiltzen ditu, EAJk bi besterik zabaldu ez dituen arren–.

Zabaldu ez dituen datuen artean daude, esaterako, garbiketa zerbitzuari eta zerbitzu gehigarriari loturikoak –580.000 euroko gastua dute guztira, eta soilik %25 bideratzen da atez ateko sistemara–, azpiegiturenak –355.000 eurokoa da, eta soilik %27 inguru bideratzen da atez atekora– edo ibilgailuen mantenuarenak –horien artean da oso-osorik edukiontzi sistemari lotuta dagoen 124.500 euroko lateralaren eta sateliteen urteko gastua, hamar urtera luzatuko litzatekeena–. Gero, ibilgailuen mantenu gastuetan, badira bi bilketa sistemak modu orekatuagoan partekatzen dituztenak, edo osorik atez atekoari lotutakoak. Hori bai, edukiontzi sistemara bideratzen da ibilgailuen mantenu gastuen zatirik handiena.

Ostera, bada kontuan izan beharreko beste

datu bat: hondakin bilketako elementuen erosketa eta mantenu kostuena. Horiek ere edukiontzi sistemara bideratzen dira neurri handi batean, alde handiarekin, atez ateko sistemakoak baino dezente handiagoak baitira edukiontzi sistemak dituen mantenu gastuak. Mantenu gastuen partidan, urtean 200.000 euro inguru hartzen ditu batez beste edukiontzi sistemak (hautsitako tapak, hautsitako sarraillak, erretako edukiontziak...). Atez ateko esekitokien erosketa eta mantenu kostuak anekdotikoak dira. Oro har, atez atekoaren erabiltzaileentzako ontzi berrien erosketari lotutakoa da urtero mantentzen den mantenu gastu bakarra, 8.000 euro ingurukoa. Konparaketa hori ere esanguratsua da, nire ustez.

Era berean, finantza alorreko txostenetik harago, txosten teknikoak biltzen duen beste aldagai garrantzitsu bat aipatzea ahaztu zaio EAJri: atez ateko sistemari dagozkion gastuak ez dira soilik Oñatiko eta Antzuolako bilketara bideratzen. Aretxabaletako, Arrasateko, Bergarako eta Leintz-Gatzagako komertzio, zerbitzu eta erakundearen egoitzetako hondakinen bilketa zerbitzura ere bideratzen dira. Beraz, EAJk egindako baieztapen hau, edo aditzera eman nahi duena, ez da zuzena: “Debagoienean, bi udalerrik sistema askoz garestiagoa erabiltzen dutenez, gainerako udalerrietako tasak garestitu egiten dira”. Adierazpen horrekin uler daiteke Debagoieneko zortzi herrietatik seik beste biera ordaindu beharra dutela. Ez da horrela. Neurri desberdinetan bada ere, atez atekoari loturiko gastuak zortzi herrietatik seitarra heltzen dira zuzenean. Modu berean, atez ateko sistema “askoz garestiagoa” dela dio –auskalo zein kalkulu eginda, zein datu kontuan hartuta eta zein baztertuta lortu dituen balizko kostu batzuk eskaini ditu baieztapen horri lotuta–. Hori ere ez da zuzena, aurreko lerroetan berrets daitekeenez.

Bukatzen joateko, hondakin bilketa sistemen arrakastarako funtsezko aldagai den bereizte tasari egin nahi nioke aipamen, hori ere, edo antzerako zerbait –EAJk eskainitako datuak



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

ez dira bost frakzio nagusien bereizketarenak, bestelakoak ere sartzen dira, Garbigunean jasotzen diren bestelako hondakinak, kasurako-, aipatu baitu alderdi jeltzaleak. Horri lotuta ere irakurketa ugari egin litezke, baina, nire ustez, bada azaldu beharreko zerbait: bereizte tasaren kalkulua hondakinak bildu berritan egiten da, alegia, era desegokian botatako hondakinak ere (inpropioak) kontuan hartzen dira. Inpropioen kopurua handiagoa izan ohi da edukiontzi sisteman. Hemendik aurrera, zorionez, zehatzago ezagutu ahal izango ditugu datuok, hondakinen karakterizazioaren jarraipena egitea, eta, hortaz, bereizketa datu fidagarriagoak izatea ahalbidetuko baitu esleipen berriak. Ziur naiz horrek ere aberastuko duela hondakinen bilketa sistemen inguruko irakurketa.

Jakin badakit nire artikulua alor ekonomikoaz ari dela batez ere, eta harago egin beharra lukeela, baina datu asko falta zitzaizkion EAJren irakurketari. Iruditu zait garrantzitsua zela zenbait gai argitzea, gutxien gutxienik, alderdi jeltzaleak irmoki egindako baieztapenen inguruko hausnarketa ahalbidetzeko: atez atekoa askoz garestiagoa dela, sei herrik birena ordaindu behar dutela, hondakinen bilketa sistemak ez duela eraginik birziklapenean... Dena den, gai honek, kontuan izan beharreko beste zenbait aldagai ditu, hala nola, ingurumenaren zaintza—Gipuzkoan bizirik dugu bizirauteko errefus beharra duen erraustegi bat, jasangarri izatetik urrun dagoena eta guztiok ordaindu beharreko gastu bat duena—, gizartearekiko eta datozen belaunaldiekiko erantzukizuna, iraunkortasuna... Horiek, dena den, artikulua espazio mugak medio, hurrengorako utzi beharko ditugu. Bitartean, uste dut irakurketa partzialak, ez zuzenak eta testuingururik gabeak baztertzen hasi behar genukeela, gaizki ulertarazteko arriskurik egon ez dadin.

» OHAR ETA DEIALDIAK «

Presoen aldeko zozketan saritua

Aurtengo gabonetako 'EZIN DA GEHIAGO LUZATU' presoen aldeko zozketako saskiaren irabazlea Unai Aranburu izan da 0562 zenbakiarekin. Zorionak! Mila esker parte hartu duten guztiei.



'Utzi sorginei', Oñatiko txondorraren dokumentala, Youtube-n ikusgai

'Txondorraren bueltan' ekimenaren baitan hainbat herritarren artean 2024ko udan egin zuten txondorrari buruzko dokumentala Youtuben egongo da ikusgai aurrerantzean (<https://www.youtube.com/@TxondorrBueltan>).

"Herritar talde baten proiektu kolektiboa, herritar askoren partehartzearekin baino posible izango ez zena. Urte osoko lanaren emaitza: ikatza, bai, eta... zakukada bat bizipen, hamaika lagun berri, milaka emozio eta sentipen! Egurra, sua, haizea, basoa, herria, ... Ikasitakoa bihotzean daramagu, herri-ezagutzen haria eten ez dadin, datozenei eskaintzeko. Beti ere, misterio puntu bat utziz...2000esker eta eskumin, bizi-esperientzia eta ikasbide hauetan bidelagun izan zaituztegunoi!!! Eta, halakorik bizi izan ez duzuenok... ekin! Eta utzi sorginei! Zuen gozamenerako...", adierazi dute egileek.



'Nola erabili makinak gimnasioak' tailerra

Zubikoa kiroldegiko Bizittu gimnasioan bertako makinak egoki erabiltzen ikasteko saio teoriko-praktikoa egingo da otsailaren 21ean. Hiru txanda egongo dira: 9:15-10:15 / 10:30-11:30 / 11:45-12:45. Izen-ematea, fitness delan bertan edo kiroldegiko harreran.



Begirale poltsa osatzeko deialdia

Gazteentzako ikas-bidaia antolatzen dituen Feel My Way Kooperatibak begirale poltsa osatu nahi du. Beraz, begirale titulua baldin badaukazu, edo begirale esperientziak izateko interesa baldin baduzu, beraiekin harremanetan jartzera gonbidatzen zaituzte: kaixo@feelmw.com.

Maite Aiaitui Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

ARRIZABALAGA
Aroztegia
Bereaz Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak
Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



"Ba niri, nire seme/alaba nerabeak, dena kontatzen dit..."

Ba seguraski ez. Eta normala da. Baina jar dezagun hau testuinguruan.

Seguru gaude behin baino gehiagotan entzun/esan duzuela lerro hauei izenburua jartzen dien esaldia. Alde batetik, eta lehen inpresioan, guraso horrek bere seme edo alabarekin duen komunikazio eta konfiantza maila altuaren erakusgarri izan daiteke, baina bai esaldiak, eta baita gaiak badu bere konplexutasuna.

Nerabeen kasuan, batez ere, jakina da gora-behera emozionalek, eta beraien pertsona identitatearen eraikuntza prozesuak, estadio emozional ezberdinetatik pasatzera eramaten dituztelako. Haserre, beldurra, tristura, poztasuna... oinarriko emozio bezala. Emozio konplexuagoetan sartzen bagara, batez ere errua (edo kulp) agertzen da sarri, zerbait ez egitearen, edo ondo ez egin izanaren karga bezala. Eta erruak fase ezberdinetara daramatza.

Errua edo kulp, egin den horregatik auto-balorazio negatiboa, damua, tristura, lotsa.

Emozio hauek ateratzea, eta batez ere, atera ahal izateko testuinguru egokia sortzea ez da erraza izaten, inork ez baitu epaitua izan nahi. Epaitzeak, balorazio negatibo bat baitakar ostean eta gainera, guraso bezala horrelako egoeren aurrean erregulazio emozionalerako baliabide falta badaukagu, gure seme-alabengan eragina izango du, gure erreakzioaren aurrean, hurrengo aldi baten "dena" ez kontatzera, edo *makillatuta* kontatzea ekarri dezake.

Seme/alaba batek ez ditu inoiz, inola ere, bere gurasoak dezepzionatu nahi, eta beraz, hauen jokabidea, eta kontatzen digutena (bai kantitatean, baita moduan ere) helduok egoera hauetan dugun erreakzioen baitakoa izango da. Helduok gero eta emozionalki egonkorragoak izan, gero eta erregulaziorako baliabide gehiago izan, kontatzen digutena gehiago beharko luke izan. Gehiago eta egiago, edo objektiboago bahintzat. Kontutan izan behar dugu garapen etapa horietan zaila dela objektibotasuna izatea, eta bakoitzaren pertzepzioak, inguruneak, talde-presioak, eta batez ere, internetetik datozen kanpo-influentziek ... askotan ez digutela ondo eta gaizki dagoenaren marra ikusten utzi eta iritzi solido bat eraikitzen.

Horregatik, besteak-beste, "Ba niri nire seme/alaba nerabeak dena kontatzen dit..." esaldiak, badauka bestalde, norberaren

konplexutik ere. Are kezkarriagoa den gehiegizko-babes edo, gazteleraz asko erabiltzen den *sobreprotección*, horretatik ere.

Beraz hitz egin dezagun beraiekin, epaitu gabe, ulertuaz nerabezaroa hanka sartu, atera eta ikasteko garai bat dela (akaso guk geuk ere ez al dugu hanka sartzen?). Garai honetan urruntze bat egoten da eta nahiz eta guk hazi ditugun haurrak diren, momentu askotan, helduok ez ditugula ulertzen sentitzen dute. Eta batez ere, helduok, eman diezaiegun eredu, begiratu gu nola gauden eta nola jokatzeko beraien aurrean kokatzen garenean, gure barruan zer mugitzen den gauza bat edo bestea kontatzen digutenean ... eta **ematen diegun erantzunaren arabera izango da beraiekin eraikiko dugun konfiantza.**

Beraz, goiko esaldiak honela beharko lukeela iruditzen zaigu. "Uste dut, nire seme/alaba nerabeak, gauza asko kontatzen dizkidala, baina ulertzen dut beste gauza batzuk gorde egiten dituela..."

Nerabeekin lan egiten dugun hezitzaileek bereziki kezkatzen gaituen gai bat proposatzen dizuegu zuen seme/alabekin lantzeko (epaitu gabe, emozionalki segurtasun eta lasaitasunean kokatuta, eta goian dioguna kontutan hartuz, noski.):

- Ba al dakizue zuen seme edo alaben whatsapp taldeetatik (beraiei ezer esan gabe) kide batzuk kaleratuak izan direla? Zuen seme/alaba kanporatua izan ez bada, hori gertatu denaren testigu edo konplize izan daiteke? Edo agian, lagundu nahi du, baina beldur da berari berdina egingo ote dioten? Hori oraintxe bertan gertatzen ari da. Oñatiko lagun-koadrila dezentetan, eta askotan bazterketa egoera horiek jazarpen egoera bortitzaigoetara iristen dira.

Gai mamitsua da, gure erantzukizuna da gazteek modu egokian kudeatu ezin dituzten egoeretan laguntzea. Beraz, hitz egin dezagun beraiekin, eta "dena" edo "ia dena" kontatzera anima ditzagun, horretarako testuinguru egokia sortzea guri baitagokigu.

Iñigo Ugarte Inza / Haur eta Gazteriako hezitzaile taldea.

» UDALEKO GAZTERIA BATZORDEAREN ZERBITZU BERRIA

Gazte aholkularitza Psikologikoa

- 16 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako zerbitzua. Dohainik.
- San Juan kaleko 5 zenbakidun lokalean
- Ostegunero, 16:00 -18:00 (aurrez txanda hartuta)
- 688 815 351 / gazteaholkularitza@onati.eus



San Juan
kaleko 5
zenbakiko
lokalean
ematen da
zerbitzua

“ZEREN ZAIN ZAUDE AURREZTEN HASTEKO?”

- ZUNTZA 500Mb
- + 2 MUGIKOR-LINEA
- + 50 GB PARTEKATZEKO

34,90 € /HILEAN
BEZA barne

Zatoz LIZKER INFORMATIKA
dendara, kontrata ezazu
zuntza + mugikor linea bat eta
aukeratu zuretzat opari hau



LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



[BEZa barne]. Eta aukeratu aire bidezko frijigailua. Otsailaren 1etik otsailaren 28ra, eskaintzan kontratua baduzu: 500 Mb-eko zuntza + 2 mugikor-linea, dei mugagabeekin eta partekatzeko 50 GB-rekin, hilean 34,90 €. Instalazioan 229,90 €-ko deskontua, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldura eta 5G terminalera lotuta. Existenziak amaitu arte. Ikusi gainerako baldintzak hemen: www.masmovil.es

MASMOVIL

AURREZTU, ETA KITO

Aloña Mendi-Eskubaloiak 50 URTE

Goi mailako partiduak, hitzaldiak, herri izaerako ekitaldiak... hainbat ekintza antolatuko ditu Aloña Mendiko eskubaloia sailak urte osoan zehar, mende erdiko ibilbidea ospatzeko.



50. urteurreneko logoa

2026a urte berezia izango da Aloña Mendiren Eskubaloi sailarentzat, 50 urte betetzen baititu, eta urteurren borobila merezi duen moduan urte osoko egitaraua prestatzen ari dira. Kirol hitzorduak izango dira gehienak, baina hitzaldi, mahai-inguru, teknifikazio saio eta herri mailako ospakizunak ere izango dira tartean (ikusi ondoko taulan). Kamisetak ere atera dituzte, ondoko argazkian ikus daitekeen moduan, 50. urteurreneko logoarekin.

Lantalde bat eratu dute, Aitor Mendarozketa saileko presidentea buru dela, urtemugako ospakizunetarako. Hilero ekintza bat, gutxienez, antolatzeko asmoa azaldu dute, eta, dagoeneko, hasi da 'festa', urtarilaren 31n Asobal mailako Irudek Bidasoa eta Villa de Aranda taldeek jokatu zuten partiduaz gozatzeko aukera izan baitzuten Zubikoa kiroldegia lepo bete zuten 600 bat zaletuk.

Emakumezkoen goi mailako eskubaloia bertatik bertara ikusteko aukera ere egongo



50. urteurreneko lantaldeko kideak eta hiru jokalarri gazte, urtemugarako atera duten kamiseta soinean dutela



HASIERA BIKAINA Irudek-Bidasoa eta Villa de Aranda ASOBAL mailako taldeek urtarilaren 31n Zubikoa jokatu zuten partiduarekin hasiera ederra eman dio Aloña Mendiko eskubaloi sailak 50. urteurrenari. Kiroldegiko armailak lepo bete ziren goi mailako eskubaloiaz gozatzeko. Irundarrak nagusitu ziren, 37-30. Eskubaloi sailak eskertu egin nahi du zaletuek emandako erantzun bikaina.

50. URTEURRENEKO EGITARAUA

URTARRILA

- Asobal mailako partidua **Bidasoa** eta **Aranda** artean

MAIATZA

- Eskubaloi egokituko Euskadiko txapelketako finalak
- Infantil mailako **Korpus txapelketa**, Euskadi, Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaia neska eta mutilen selekzioekin

EKAINA

- **Jokalarri ohien** arteko partiduak

UZTAILAK

- 50. urteurreneko **bazkari herrikoia** uztailaren 4an. Egun osoko egitaraua prestatzen ari dira. Aste Santu ostean jarriko dira salgai tiketak.

DATAK ZEHAZTEKE

- Elite mailako **Bera Bera** taldearen partidua. Ziurrenera abuztu bukaeran izango da.
- **Euskadiko** senior mailako emakumezkoen **selekzioaren** partidua. Udazkenean izango da.
- Urtean zehar **hitzaldi, mahainguru** eta jokalarri nahiz entrenatzaileei zuzendutako **teknifikazio saioak** antolatzeko asmoa dute.



ALOÑA MENDIKO LEHEN TALDEA. 1976ko taldea, San Migel txapelketa jokatu aurtxoan. Orduan Foruen plazan jokutzen zen.

da urtean zehar, Super Amara Bera Bera eta elite mailako Euskadiko emakumeen selekzioaren partidu bana lotzen ari baita Aloña Mendi. Datak zehazteke daude oraindik, baina uda amaieran eta udazken aldera izango omen dira.

Horiez gain, jada aurreratu daiteke, maiatzaren 17an Eskubaloi Egokituko Euskadiko Txapelketako finalak jokatu direla Oñatin, eta hilabete bereko 30an, Korpus Txapelketa jokatu da, infantil mailako Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta, aurten, berritasun moduan, Euskadiko neska eta mutilen selekzioen parte hartzearekin.

BAZKARI HERRIKOIA

Uztailaren 4an izango da 50. urteurreneko ekitaldi nagusi, edo herrikoiena, behinik behin. Herri bazkaria egingo da eskubaloiarekin modu batera edo bestera loturaren bat duten edo izan duten, jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzako kide, laguntzaile eta zaletu guztiei irekia. 600 bat lagunentzako lekua egongo da eta Aste Santu ostean jarriko dituzte salgai tiketak. Egitarau berezia prestatuko dute egun hori girotzeko.

Aipatutako guztiez gain, hitzaldi, solasaldi eta jokalaria nahiz entrenatzaileei zuzendutako teknifikazio saioak antolatzeko asmoa ere badute, baina datak eta hizlariak lotzen ari dira oraindik.

ESKUBALOIA SENDO

Urte hauetan guztietan gazteen prestakuntzan, kirol balioen sustapenean eta komunitatearekiko konpromisoan erreferente izatea izan da Aloña Mendiko Eskubaloi sailaren helburua. Ildo horretan, 50. urteurrena baliatu nahi dute eskubaloi sailaren iragana balioan jartzeko, eta, era berean, etorkizunera begira proiektua sendotzeko. Egun, 15 taldetan banatuta dauden 241 jokalaria federatu ditu sailak, 30 entrenatzailek gidatuta. Gainera, Eskubaloi Eskolan 116 neska-mutikok dihardute 7 taldetan, 5 entrenatzailearen laguntzarekin.

SATRUSTEGI MENDIKATEA

MENDI IRTEERA / OTSAILAK 22

Aloña Mendi otsailerako antolatu duen mendi ibilaldia Andia mendikatearen jarraipena den Satrustegi mendilerroan zehar egingo da, Sakana haranaren gainean. Satrustegin abiatu eta Irurtzunen amaituko da irteera, Txurregi (1125m.) eta Gaztelu (1085m) tontorrek zapaldu ostean. (16km / +1.000m.) Lehen partea maldatsua da, goiko lautadak hartu arte. Gero, gainik-gain doa bidea, Irurtzunera jaisteko. Ez du zailtasunik. Izena emateko epea: **otsailak 12-19** (10€), alonamendi.mendi@gmail.com (50 plaza).



Andia mendikatearen jarraipena da Satrustegikoa



Domina ugari neguko txapelketan

IGERIKETA Aloña Mendiko igerilariek oso lan txukuna egin zuten urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean Irunen jokatu ziren Gipuzkoako Neguko Txapelketetan. **Kepa Aldekoa** txapelduna izan zen maila absolutuko 50 Bizkarrean (27.95) eta bigarren sailkatu zen 100 Bizkarrean (1:00.01) eta 100 Estiloetan (1:02.02), **Alixe Ojea**, Infantil mailako igerilaria, ere hirutan igo zen podiumera. Bigarren sailkatu zen 200 Tximeletan (2:36.29) –maila absolutuan ere 2.a izan zen–, 400 Estiloetan (5:44.16) eta hirugarren 50 Tximeletan (30.89). Infantil mailan baita ere, **Julen Pedregal** bigarren sailkatu zen 200 Estiloetan (2:31.34) eta hirugarren 400 Estiloetan (5:35.51), eta maila berean **Xabi Galdos** hirugarren sailkatu zen 1500 Libreetan (19:03.77). Junior mailari dagokionez, **Irati Pelayo** txapelduna izan zen 800 Libreetan (9:53.39) –hirugarrena maila absolutuan–. Azpimarratu, azkenik, **Aimar Urzelaik** eta **Unai Pedregalek** neguko Espainiako txapelketarako markak lortu dituztela.

● OÑABIKE
est. 95



Errepidea utzita, ziklo krosaz gozatzen

Gipuzkoako txapelketa irabazi eta Euskadiko rankingeko bigarrena izan da Unai Cueva



Duela bi urte utzi zuen errepidea, Afizionatu mailan hiru urte eman ostean, eta orain ziklo krosaz gozatzen ari da Unai Cueva (Oñati, 2002). Denboraldi bikaina osatu du; Gipuzkoako txapelketa irabazteaz gain Euskadiko federazioaren rankingeko bigarrena izan da, Aitor Hernández ermuar handiaren atzetik. Tolosa eta Zornotzako probetako podiumera ere igo da Cueva, eta, tamalez, Euskadiko txapelketan zorte txarra izan zuen, azken itzulian izandako zulatu batek podiumeko lehiatik at utzi baitzuen.

Betidanik gustatu izan zaio ziklo krosa. 2018an, jada, Gipuzkoako txapelduna izan zen Kadete mailan, hain zuzen ere Oñatin jokaturako lasterketan, eta orain, errepidea utzi eta bi urtera, txirrindularitzako modalitate berezi honetaz gozatzen ari da berriz ere.

Afizionatu mailan hiru denboraldi egin ostean, errepideko txirrindularitzarekin "erreta" amaitu zuela aitortu digu Unaik. "Errepidea oso exigentea da; ordu asko entrenatzen, karrera asko...". Motibazioa galdu zuen eta, hala, dortsala kentzea erabaki zuen 2023ko urrian, denboraldiko azken proba, Oñatiko San Migel saria, amaitu orduko.

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

Ia urtebete konpetiziotik aldentuta egon ondoren, barruan daraman har konpetitiboak eta berezkoa duen lehiarako grinak bultzatuta, ziklo krosetako denboraldia egitea pentsatu zuen 2024ko udazkenean. "Ziklo kros sasoia 3-4 hilabete irauten du, ez da errepidea bezain exigentea, entrenamendu saioak motzagoak dira, intentsitate handikoak bai, baina motzak, eta niri gustatu egiten zait entrenamenduetan estutzea. Beraz, animatu egin nintzen".

Berandu hasi zen entrenatzen, baina, hala ere, gustura aritu zen eta horrek animatu zuen aurtengo sasoiaren lehenago eta hobeto prestatzera. Eta, bistakoa denez, lanak bere saria izan du: Euskadiko rankingeko 2. postua, Gipuzkoako txapelketa, Zornotzan 2., Tolosan 3., Orduñan eta Elgoibarren 4., Lezaman 7... "Gustura nago emandako errendimenduekin, bai. Aurten lehenago entrenatzen hasi nintzen eta aurrerapauso nabarmena eman dudala ikusi dut. Askoz gusturago ibili naiz. Indartsu ekin nion denboraldiari, gero, erdialdera, maila pittin bat jaitsi nuen, eta azkenengo lasterketetara berriz ere indartsu iritsi naiz".

Arantza bat geratu zaio ordea, izan ere, denboraldiko azken proban, abenduaren 28an Seguran jokatu zen Euskadiko txapelketa, zoritxarreko zulu baten ondorioz podiumeko lehiatik at geratu baitzen azken itzulian.

Eibarko EKD (Eibarko Klub Deportivo) taldearekin lehiatzen ari da Unai, eta errepidera bueltatzeko eskaintza ere egin dio taldeak, baina, oraingoz behintzat, ez omen dio inolako inbidiarik ematen. Orain, erritmoa lasaitu eta uda ostean berriz ere ziklo kros denboraldian zentratzeko asmoa du. "Hobetzen jarraitu nahi nuke. Azken batean, esperientziak asko balio du ziklo krosetan; fisikoki ondo prestatuta egon behar da, jakina, baina teknika oso garrantzitsua da, eta hori esperientziarekin lortzen da. Iaztik hona hobekuntza handia nabaritu dut, eta bide horretan jarraitzea da asmoa".

Irizar eta Murguzur, Euskadiko podiumean



Abenduaren 28an Seguran jokatu zen Euskadiko ziklo kros txapelketa podiumera igo ziren Aloña Mendiko bi txirrindulari: Kadete mailan 2. sailkatu zen Aimar Irizar, eta Junior mailan 3. helmugaratu zen Aitor Murguzur. Ondoren, urtarilaren 9an Cuencan jokatu zen Espainiako txapelketa parte hartu zuten, Euskadi ordezkatzuz, eta 28. eta 29. postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Espainiako muestra-txakurren txapelketa hirugarren sailkatu da Aitor Aizpurua



Lau urteko *Setter* arrazako *Laio de Ganekogorta* txakurrarekin lehiatu da Aitor Aizpurua



Lehenago ere aipatu izan ditugu Aitor Aizpuruak muestra edo erakus-txakurren txapelketetan lortutako garaipen eta bestelako sariak, baina oraingoa maila bat gorago iritsi dela esan daiteke, hirugarren sailkatu baita Espainiako txapelketa, oilagorren edo mendi-basoko modalitatean, muestra-txakurren arloan dagoen modalitate zailenean, ia erabat profesionalizatutako sektorea baita.

Gogoratu, muestra-txakurren lehiaketetan ez dela hegaztirik hiltzen. Bilatze lana eta, batez ere, txakurraren lana egiteko modua eta ezaugarriak puntuatzen direla: ehizarako grina, erresistentzia, bilaketa-metodoa, abiadura eta, bereziki, arraza bakoitzaren estandarraren arabera estila. Txakurrak aurkitu eta markatu egin behar du non dagoen hegaztia, geldi-geldi lurrian etzanda, eta, ondoren, ehiztariak airera egiten du tiro. Lau urteko *Setter* arrazako *Laio de Ganekogorta* txakurrarekin lehiatu da Aitor Burgos, Palentzia eta Errioxako proba puntuagarrietan, eta, esan bezala, 3. sailkatu da. Horrenbestez, Turkian jokatu den Europako txapelketara joateko gonbitea ere jaso zuen Espainiako federazioaren aldetik, baina ezin izan zuen parte hartu agenda arazoak tarteko.

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ANGIK, PINTURA LANAK...
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO
OLAKUA 12 B 4 erd. - 20560 ONATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Catalana Occidente
Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:
✓ Heriotza
✓ Autoak
✓ Bizitza
✓ Istripuak
✓ Ontziak
✓ Osasuna
✓ Etxebizitza
✓ Aurrezkia
✓ Laborantza
Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Espaziora bidaiatzeko aukera, musika bandaren eskutik

> Oñatiko musika bandak denboraldiko hirugarren kontzertua eskainiko du **otsailaren 8an**

> Espazioarekin eta zientzia fikzioarekin lotura duten obra ezagunak joko ditu.

Oñatiko Musika Bandak denboraldiko hirugarren kontzertua eskainiko du otsailaren 8an, "Espazioko emozioak" izenburupean. Familia osoari zuzendutako kontzertua izango da, entzuleak espaziora bidaiatzera gonbidatzen dituen, musikaren bidez unibertsoaren handitasuna, abentura eta misterioaren emozioak bizitzeko aukera eskainiz.

Kontzerturako aukeratutako programak espazioarekin eta zientzia-fikzioarekin lotutako obra ospetsu eta esanguratsuak biltzen ditu, estilo eta giro ezberdinak uztartuz. Hasieran, **Cassiopeia** (Carlos Marques) obrak izar-konstelazioen edertasuna iradokitzen du, giro liriko eta zabala sortuz. Ondoren, **Apollo 11 – Mission to the Moon** eta **Stratosphere** lanetan, Otto M. Schwarz konpositoreak gizakiaren espaziorako lehen bidaiei epika eta tentsioa musikara eramaten ditu.

ZINEKO SOINU BANDA

Zinemaren munduak ere presentzia nabarmena izango du kontzertuan, **Guardians of the Galaxy** film ospetsuaren soinu-bandaren moldaketarekin (arr. Michael Brown), energiaz eta erritmoz betetako unea eskainiz. Bidaia horrek jarraipena izango du **A Space Suite** (Michael Saurer) lanarekin, espazioko esplorazioaren etapa desberdinak irudikatzen dituen suite dinamiko batekin. Azken zatian, **Orbital** (A. B. Sims) eta **Out of Space** (Timothy Doss) obrek mugimendua, modernitatea eta indarra ekarriko dituzte, kontzertuari amaiera ikusgarria emanez.

'Espazioko emozioak' kontzertua musika-esperientzia bat baino gehiago izango da: irudimena pizteko, familian gozatzeko eta unibertsoaren soinuen bidez emozioz betetzeko gonbita. Kontzertua Zubikoa pilotalekuan izango da, 13:00etan, eta gonbidapenak, beti bezela, Txokolateixan lortu daitezke.



EGITARAU OSOA (44:36)

- *Cassiopeia* - C. Marques (9:23)
- *Apollo 11 - Mission to the Moon* - O. M. Schwarz (6:00)
- *Stratosphere* - O. M. Schwarz (5:00)
- *Guardian of the Galaxy* - arr. M. Brown (7:00)
- *A Space Suite* - M. Saurer (8:27)
- *Orbital* - A. B. Sims (4:26)
- *Out of Space* - T. Doss (4:30)

Urrezko pina, Iratxe Mugarzari



Une hunkigarria ere izango du otsailaren 8ko kontzertuak, izan ere Iratxe Mugarza Ibarrondok urrezko pina jasoko baitu, Oñatiko Musika Bandako egindako 25 urteko ibilbidea aitortuz. Urte horietan guztietan egindako ekarpena eta konpromisoa eskertzeko ekitaldia izango da. Iratxe Mugarzak klarinete baxua jotzen du bandan.



Oñatiko inauteriaren transmisioa helburu


> 'Potx eta Lotx Oñatiko inauterietan' ikuskizun berezia eskainiko dute pailazo oñatiarrek **otsailaren 12an**. > Oñatiko inauteriaren istorioa eta ezaugarriak haurrei helaraztea du helburu ikuskizunak, beraien parte senti dezaten.

Potx eta Lotx pailazoek, Izaskun eta Xabi Sound-ekin batera emanaldi berezia eskainiko dute otsailaren 12an, Santa Ana antzokian. Oñatiko inauteriaren baitan sortutako istorioa izango da eta inauteri lan-taldeko kideak ez ezik, herriko ikastetxeetako haurrak izango dituzte lagun oholta gainean.

TRANSMISIOA HELBURU

Potx, Lotx, Izaskun eta Xabi Sound Oñatiko inauterietan barrena murgilduko dira oraingo honetan, izan ere, Konde eta Kondesaren etorrera ikustera joateko plana antolatu baitute. Plazara bidean, hainbat pertsonaiekin egingo dute topo; hartza, naturako elementuak, txokolateroak, umea... pertsonaia hauek ezagutzeko aitzakia izango da hori, baina, ohi modura, barre algara, kantu eta musikaren erritmoan egingo dute.

Transmisiorako tresna gisa sortu da, besteak beste, antzezlan berezi hau. Oñatiko inauteri lan-taldearen asmoa bada nolabait herrian ospatzen den inauteria haurren mundura gerturatzea; haurrek pertsonaiak ezagutzea, Oñatiko inauteriaren istorioa edota kontakizuna zein den ulertzea, eta guzti hau haien parte sentitzea. Helburu horiei erantzuteko asmoz sortu dute ikuskizuna.



HERRI ERAGILEEN ARTEKO ELKARLANA

Pailazoez gain eta aipatu bezala, inauteri lan-taldeko kideak ere izango dituzte lagun oholta gainean, izan ere, beraiek izango dira pertsonaiak gorpuztuko dituztenak. Dantza egitearen ardura, ordea, ikastetxeetako haurrena izango da eta antzezlanean abestuko diren bertsoak Txinparta Bertso Eskolako Lide Arregik idatzi ditu. Oñatiko Udalaren babesa ere izan dute ikuskizun hau sortzeko.

ARRATSALDE OSOKO EGITARAUA

Arratsaldean egiten den inauteri txikiaren ekimena osatzera dator antzezlan hau. Herriko hiru ikastetxeekin elkarlanean antolatzen da inauteri txikia eta lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrek hartzen dute parte hemen. Olaiturritik abiatuta (15:00), kalerik kale ibiliko dira ikasleak eta 17:30ean izango da Potx eta Lotx pailazoen emanaldia. Sarrerak Txokolaterixan daude eskuragarri eta dohainik dira.

▲
**Inauteri Txikiaren
ostean, arratsaldeko
17:30etan izengo
da emanaldia,
Santa Ana aretoan.
Sarrerak (dohainik)
Txokolateixan daude
eskuragarri.**


**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**
Ultzein kalea, 3 - Behea B / 652 710 837

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

» ANTZERKIA

'Desobedienteak 18/98'

Ttanttakaren lan berria Oñatin ikusgai

Urtarrilean estreinatu berri duen 'Desobedienteak 18/98' lan berria taularatuko du Ttanttaka taldeak Oñatin, otsailaren 8an, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

María Goicelayak idatzi eta Fernando Bernuések eta Mireia Gabilondok zuzendua, desobedientzia eta errebeldia ardatz dituen antzezlan da. "Ainhoa, Zientzia Politikoetan doktoratu berri da eta doktoretza-tesia defendatu behar du epaimahai akademiko baten aurrean. Tesiak desobedientzia zibila jorratzen du gure demokrazietan indarrean dagoen eta beharrezkoa den borroka-praktika gisa, eta, aldi berean, esanahiz betetako adibideen bitartez, eskubide zibilen historian eta haiek irabazteko bidean desobedientzia zibilak izan duen rol erabakigarriaz hitz egiten du".

Goicelayak dioenez, hainbat galdera konplexu jorratzen dira antzezlanean: zergatik desobeditzen dugu? Noiz desobeditu behar dugu legeak dioena zilegitasun handiago batera hurbiltzeko? Legezkoa dena beti da zilegi? Herritarra behartuta al dago kritikarik gabe obeditzera demokratikoki aukeratutako gobernu legitimo batean? Zilegi al da desobedientzia zibila gizarte demokratikoetan?... Sarrerak (10€) www.oñati.eus atarian.



Oñatiko hiru taldek parte hartuko dute Gipuzkoako Herriarteko bertso txapelketan

Oñatiko hiru taldek parte hartuko dute urtarrila eta maiatza artean jokatu den Gipuzkoako Herriarteko bertso txapelketan. Lau fasetan antolatu da lehiaketa; lehenengoa eskualdeka jokatu da –8 azpieskualde banatu dira–. Fase hau martxoaren 28a bitartean jokatu da eta eskualde bakoitzeko irabazleak igaroko dira bigarren fasera. Lau saio egingo dira bigarren fasean, eta 8 talde horietatik 4 sailkatuko dira final-aurreko bi saioetara. Finala, maiatzaren 30ean izango da Aiako probalekuan, bertso-bazkari erraldoi formatuan.

Bertso eskolen arteko saretzea sustatzea eta bertsolari gazteei plazetan kontatzeko aukera ematea da, besteak beste, txapelketa honen helburuak. Talde bakoitza 5 kidez osatuta egon behar da, gutxienez, eta bertsoan ariko direnez gain, gai-jartzaile eta epaile bana ere izango ditu. Hirugarren aldia da Gipuzkoako Herriarteko taldekako txapelketa jokatzeko delat. Aurreko biak 1999an eta 2017an izan ziren. www.bertsozale.eus atarian bilduko da txapelketari buruzko informazio guztia. Denera, herrialdeko 57 taldek parte hartuko dute lehiaketan.

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

HOTZ-OÑATIren aldeko antzezlan

Pake Lekuko Ikusi-Makusi taldeak 'Oporretara goaz!' lana taularatuko du otsailaren 20an



AURRE-SALMENTA
Otsailaren 20ko emanaldirako sarrerak (5€) Pake Lekun, Lagun Lekun eta Txokolateixan daude salgai.



Azaroaren 15ean estreinatu zuen Ikusi-Makusi taldeak antzezlan berria

Pake Lekuko 'Ikusi Makusi' taldeak bere azken lana ('Oporretara goaz!' / 'Nos vamos de vacaciones!') antzezlan taularatuko du otsailaren 20an (Santa Ana antzokian, 19:00etan), HOTZ-OÑATI taldearen alde. Benidormera opor-bidaia prestatzen ari diren Sole, Luisa eta Hortensia lagunak gorabeherak kontatzen ditu. Bidaia berezia da, senar barik joatea erabaki dutelako, baina ezusteko handi batek plan guztiak hankaz gora jarriko dizkie. Umorez eta sinpatiaz beteriko komedia da, Pake Lekukoek ohi duten moduan. Sarrerak (5€) Pake Lekun, Lagun Lekun eta Txokolateixan daude salgai.

BESTELAKO EKITALDIAK

Urtero bezala, Pake Lekuko Aloña abesbatza kalez kale aritu zen otsailaren 3an, Santa Ageda bezperan. Bestalde, Inauteri giroan murgilduz, otsailaren 12an **Bingo berezia** (17:00) eta **txistorra-jana** (18:30) izango dituzte Pake Lekun. Hilaren 19an Lukene Igartuak eta Izar Mendiola ama-alabek argitaratu berri dituzten bi **ipuin berriak** aurkeztuko dituzte Pake Lekun (18:30), eta hilaren 20rako irteera antolatu dute jubilatuek **Tolosara**, inauteriez gozatzera.

ELKARRIZKETA FILOSOFIKOAK

'Edertasuna. Zer da edertasuna?'

> UDAL LIBURUTEGIAN, OTSAILAREN 18an,

Aurreko bi saioek izan duten harrera bikaina ikusita, udal liburutegiak 'Elkarrizketa Filosofikoak' saio berri bat antolatu du otsailaren 18rako. Edertasuna izango da hizpide oraingo honetan. Antzinako Greziatik gaur egunera arte, edertasunaren nozioa mendebaldeko filosofiaren historian gogoeta sakonerako gaia izan da. Elkarrizketa filosofiko honetan edertasuna zer den edo edertasunak zer esan nahi duen aztertuko dugu, hainbat irudiren eta ideien kontrastearen bidez. Unibertsa ala da edertasunaren kontzeptua? Objektiboa ala subjektiboa da? Ba ote du zerikusirik sublimearekin edo transzendentziarekin?. Herritarrek elkarrekin pentsatu, zalantzak partekatu eta ideiak modu irekian kontrastatu ahal izateko gunea sortzea da saio hauen helburua.



'Izaki Gardenak'-ek lan berria aurkeztuko du Oñatin

Abian da **Burrunda Faktoria** kultur elkarteak 2026ko urte hasierarako prestatu duen egitaraua. Urtarrilean **Gaizka Insunza** eta **Harria** taldearen kontzertuak izan genituen, otsailaren 1ean **Ekaintxou** pailazoaren ikuskizuna, eta hurrengo hitzordua **Izaki Gardenak** taldearen emanaldia izango da. Jon Basagurenek sortutako Gasteizko taldeak rock, pop eta folk estiloak jorratzen ditu eta bere azken lana ('Sitsak') aurkeztuko du **martxoaren 1ean**, Antixena Gaztetxean, 19:00etan.

Beste hiru kontzertu ere iragarri ditu Burrundak. **Martxoaren 14an** Naizpresidente + Hiru Handiak, **martxoaren 20an** Ke Lepo & Felix Buff + Puntu Takoma, eta **apirilaren 18an** Galder + Gigante.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

>> LITERATURA TXATALAK (XI)

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittajauna (eta IV)**Bertsuak**

Testua: Roberto Altuna

ERLEAKErlaak lanian abauan. *argk.* Sociedad Cordobesa de Historia Natural.abau, -a = abaraska = *panal*

Hona hemen Arantzazuko errebistan agertu ziran Grazianoren bertsuak, erlaai eskiñitakuak (Ikusi "Arantzazu" XLII (1962), 155. zenb.). Zortziko txikiko hamar bertso dira, eta euroi bere airia emuteko beste bertso ezagun honein doiñuakin kantau leike: *Iturengo arotza, Markesaren alaba* edota *Nere sentimentua*.

Grazianok oso begiko dittu erlaak. Zintzuak diralako, langilliak, eta janaririk gozuen egitten dakixeillako. Eta, gaiñera, alper danak hiltten dittuelako. Oin biko alperrakin be hala egingo balitza!

1/ Izaki danetatik
erlea da zintzoena,
loratatik jangaia
bildutzen duana:
ezti gozo, janari
danetan onena,
gizon listuak ezin
asmatu dutena.

2/ Erleak ere danak
ez dira zintzuak,
batzuek jaiotzen dira
alper ta anbuak (1),
haiek samur jateko
bestek egindakuak;
mundu guztian dira
batzuek horrelakuak.

(1) *Anbúak* = erla alperren izena (zánganos).

3/ Langileak goizean
egunen begira
loratxuak biltzera
juteko mendira,
egun dana laisterka
buelta eta jira:
anbuak ordu hartan
lo egoten dira.

5/ Erle bihargileak
ez dabiltz eroso,
loratik jangaia
biltzen da nekoso;
izan behar ginduzke
maite-maite oso,
ematen dutelako
zenbait ezti gozo.

7/ Erregina bat dute
danairi agintzeko,
langileak bai zintzo
obedeitzeko;
neguan garbi-garbi
lasai bizitzeko,
berak agintzen die
anbuak hiltzeko.

9/ Anbuak egon arren
oso indartuta,
nahi duten dana janda,
gutxi nekatuta,
bik ezin dutenari
hiru-lauk helduta,
han botatzen dituzte
bizia kenduta.

4/ Langileak prisaka
gora eta behera
bildu ahal duten dana
ekartzen etxera,
arratsaldean ere
laisterka atzera;
anbuak orduantxe
pasiatutzero.

6/ Beste lan bat daukate
uda atzenean
lora guztiak zimel
jartzen diranean:
erreginaren aginduz,
haren esanean,
orduan hasten dira
hilkintza lanean.

8/ Berak hautatzen ditu
behar dituanak,
haiekin egiteko
aurrerako lanak;
zintzo betetzen dira
beraren esanak;
esaten die hiltzeko
gainerako danak.

10/ Arras hiltzen dituzte
anbo eta nagi:
begiratu erleak
duten legeari;
negurako etxea
uzten dute garbi:
hau ongi letorkio
mundu guztiari.

(Oharra: Euskera batuaren grafiaz idatzita)

Itturria: Aitta Villasantek batutako eta Antonio Zavalak argitaratutako 'Bertso bilduma' liburua, Auspoa Liburutegia, 1965.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

AGENDA

ANTZERKIA

OTSAILAK 8 / 19:00

'DESOBEDIENTEAK 18/98'

Ttamtaka taldearen antzezlan berria. Santa Ana antzokian.

OTSAILAK 20 / 19:00

'OPORRETARA GOAZI!'

HOTZ-Oñatiren alde (5€), Pake Lekuko antzerki taldearen eskutik. Santa Anan.

ERAKUSKETA

OTSAILAK 9 - MARTXOAK 1

'FUNGI? ONDDO!'

Onddoei buruzko erakusketa, Ingurumen Jardunaldien baitan. Kultur etxean.

EKITALDI BEREZIAK

OTSAILAK 12 / 17:00 eta 18:30

BINGO BEREZIA ETA TXISTORRADA

Ostegun Gizena ospatzeko. Pake Lekun.

OTSAILAK 17 / 17:00

MOZORRO FESTA

Inauteri jaien baitan. Gaztelekuan.

OTSAILAK 17 / 18:00

TXOKOLATADA SOLIDARIOA

Oñatiko Misio Taldeak antolatuta, Dhaguel-eko (Ginea Konakry) 'Oñati' ikastetxearen alde. Foruen enparantzan.

HITZALDI

OTSAILAK 9 / 18:30

'ESNATU ALA HIL. EUSKARAREN ORA-INA ETA GEROA AZTERGAI'

Hizlaria: Gari Goikoetxea. Aixotu taldeak antolatuta. Gaztelekuan.

OTSAILAK 9 / 19:00

'ONDDOEN ERREINU EZEZAGUNA'

Hizlaria: Unai Fernandez Agirre (Aranzadi). Kultur etxeko erakusketa aretoan.

OTSAILAK 10 / 17:00

'FAMILIAREN ONGIZATE EMOZIONALE-RAKO GAKO FEMINISTAK'

Hizlaria: Mireia Centeno psikologoa. San Juan kalea 5eko lokalean.

OTSAILAK 11 / 10:00

'BAKARLARI HANDIAK MUSIKA KLASI-KOAN. TEKNIKA ETA MUSIKALITATEA'

Hizlaria: Marina Lertxundi. Esperientzien Gelak antolatuta. Santa Ana aretoan.

OTSAILAK 11 / 19:00

'AZTARNA ENERGETIKOA. DESBER-DINKERIA MWH-tan NEURTZEN DA'

'ITZ4LI 3T4 PIZTU' bertso saio elektronikoa

OTSAILAK 13, GAZTELEKUAN, 19:30



Zuzeneko musika elektronikoa eta bat-bateko bertsoaritzaz uztartzen dituen saioa. Bertso-doinu berriak sortuko dituzte abesti elektronikoak bertsonatuta, besteak beste, reggae-tona, baladak, cumbia edo popa bertsoetara bihurtuz. Bertso-doinutegi tradizionalaren ondarearen parte diren doinuak ere bertsonatuko dira. **Haira Aizpurua, Aitor Tatiegi, Julio Soto eta Ekhiñe Zapirain** ariko dira bertsoetan, eta **Libe Goenaga** eta **Manex Pagola** musikarekin. Gai-jartzaile lanetan **Ainhoa Larretxea**.

'Arrainak bihotzean' antzezlan

OTSAILAK 28, INSTITUTOKO ARETOAN, 17:00



- Sarrerak (6€) Txokolateixan salgai otsailaren 2tik aurrera. Takilan 6,5€.
- Otsailaren 13an (17:00) Foruen plazan.
- Otsailaren 4, 12 eta 19an Ikastetxean.

Urgain Errekalde Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, MarMar taldearen 'Arrainak bihotzean' antzezlan ikusteko aukera egongo da otsailaren 28an, Institutuko aretoan, 17:00etan. Martik ez daki non bizi diren beldurrak, hortaz lasai bizi da kresal usaina duen herri polit batean. Aita marinela du eta portuan, bere zain dagoen egun batean, ekaitz batek uretara botako du. Nahitaezko bidaia hasiko du itsas hondoa zehar, horretarako arrainen eta beldurren hizkuntza ikasi behar badu ere.

'Herkules Oñatin: zientziaren alegoriak'

HITZALDI ZIKLOA ETA ERAKUSKETA / MARTXOAK 4 ETA 5



Bergarako UNEDek eta Oñatiko Artxibo Historiko Probintzialak antolatuta, 'Herkules Oñatin: zientziaren alegoriak Debagoienear' jardunaldiak egingo dira Bergaran eta Oñatin martxoaren 4-5ean. Arkitektura alegorikoan gordetzen diren zientziaren irudikapenak erakustea da helburua. Ikusi egitarau osoa ondoko QRan.



Hizlaria: Estitxu Villamor (EHU eta EKOPOL). Kultur etxean.

OTSAILAK 18 / 18:00

ELKARRIZKETA FILOSOFIKOAK: ZER DA EDERTASUNA?

Dinamizatzailea: Miren Camisón (Filosofia Faktoria). Udal liburutegian.

OTSAILAK 18 / 19:00

'LARREEN GARRANTZIA: ABELTZAIN-TZA ESTENTSIBOAREN ONURAK'

Hizlaria: Arantza Aldeazabal (EHU). Kultur etxean.

OTSAILAK 20 / 19:00

'KIROLARIA MENDIAN: ESPEZIE INBARDITZAILEA?'

Hizlaria: Luix Mari Zulaika (EHU). Kultur etxean.

IKUSKIZUNAK

OTSAILAK 12 / 17:30

IPUIN KONTAKETA



'ANIMALIAK'

OTSAILAK 19 / 18:00

'Ostegun Kontalariak' ekimenaren baitan 4-5 urteko haurrei zuzendutako 'Animaliak' ipuin kontaketa saioa egongo da hilaren 19an, Ana Apikaren eskutik. Gonbidapenak otsailaren 9tik aurrera [Haur liburutegian](#).

POTX ETA LOTX INAUTERIETAN

Oñatiko Inauteriari buruzko haurrentzako ikuskizuna. [Santa Ana aretoan](#).

OTSAILAK 17 / 21:00

'ARLEKINO'

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoaren eskutik. [Kiroldegiko pilotalekuan](#).

MUSIKA

OTSAILAK 7 / 21:00

ESTUTU + BIER SEIT

Antixena gaztetxeak antolatutako 'Txarrana Eguna'ren baitan. Goizean Bergarako *Katarsia* taldeak kontzertua emango du Otamendin. Gauean Elorrio eta Bilboko *Estutu* eta *Bier Seit* Punk Oi! taldeen kontzertua. [Gaztetxean](#).

OTSAILAK 8 / 13:00

'ESPAZIOKO EMOZIOAK'

Musika Bandaren kontzertua. [Zubikoa pilotalekuan](#).

MARTXOAK 1 / 19:00

IZAKI GARDENAK

Disko berriaren aurkezpena. Burrunda Faktoriaren eskutik. [Gaztetxean](#).

TAILERRAK

OTSAILAK 14 / 17:00

GLOBOFLEXIA

Globoekin irudiak sortzen ikasteko. [Gaztelekuan](#).

ENEAGRAMA TAILERRA

Maitek eta Lourdesek gidatuta. Hilean larunbat bat. Harremanetarako: 658 719 086 / lourdescid1@hotmail.com. [Lagun Leku \(Eltzia\)](#).

ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (19:30)

Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)

Gazteak: Larunbata eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

OTSAILAK 5 - 9

ZINE KLUBA:

LOS TORTUGA

(VOSE)

NAGUSIAK:

EL MÉDICO 2

GAZTETXOAK:

ABUELA

TREMENDA



OTSAILAK 12 - 16

ZINE KLUBA:

LA CHICA ZURDA

(VOSE)

NAGUSIAK:

SONG SUNG BLUE:

CANCIÓN PARA DOS

GAZTETXOAK:

BABA YAGA ETA AZ-

TIKERIEN LIBURUA



OTSAILAK 19 - 23

ZINE KLUBA:

MARIPOSAS

NEGRAS (*)

Ingurumen jardunaldiak

NAGUSIAK:

HAMNET

GAZTETXOAK:

EVOLUTION

(EUSKARAZ)



OTS. 26 - MARTXOAK 2

ZINE KLUBA:

HISTORIAS DEL

BUEN VALLE (*)

Ingurumen jardunaldiak

NAGUSIAK:

TRES ADIOSES

GAZTETXOAK:

COMO CABRAS



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16

Otsailak 1, 9, 10, 18, 19, 27 eta 28.
Martxoak 1.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22

Otsailak 2, 3, 11, 12, 20, 21 eta 22.
Martxoak 2 eta 3.

GARATE

Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58

Otsailak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24.
Martxoak 4 eta 5.

ULDAIN

Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28

Otsailak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26.
Martxoak 6, 7 eta 8.

ODOL ATERALDIA

OTSAILAK 20 / 16:30-20:30

MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

ALOKAIRURAKO ETXE BILA

Bikote arduratsua etxe bila. Lan egonkordun bikote lasaia eta arduratsua gara. Ez-erretzaileak eta erreferentziadunak. Deitu: 602 803 590 / 674 571 327 (Diana eta Michael)

LURSAIL BILA Ganaduarentzako lursail bila nabil. Deitu: 656 391 607

UMEAK ZAINDU Oñatiko neska, arduratsua eta atsegina, umeak zaindu edo eskolara eramateko prest, eta adineko pertsonen konpainia egiteko eta paseora ateratzeko prest. Deitu: 695 738 795

BASERRIA Baserrria erosi edo alokairuan hartu nahiko nuke. Deitu: 620 710 109.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72



BADAKIZU ZEIN DEN PANTONE 2026 KO KOLOREA?

Berotasuna galdu gabe argitasuna ematen duen
zuri krematsu eta etereoa.

L

C

AEOU
CCDDLNR
DARAMA

 amuebladora
mondragonesa